

A photograph of a person lying on the ground in a forest, completely covered by a white sheet. Only their eyes and the tips of their fingers are visible. The background shows trees and a bright sky with clouds. The lighting is dramatic, with strong shadows and highlights.

uk

98. zenbakia / 2006 apirilak 23

Aintzat hartu



Begiraiozu Bai Euskarari Ziurtagiriari

www.baieuskarari.org
902 43 00 26

UK galeria > Maider Bilbao



Arte Ederretan lizentziatua da Maider Bilbao (Bilbo, 1977). Horrez gain, *Pentsamendua eta praxia egungo artean* izenburupean doktorego ikasketak eginak ditu Euskal Herriko Unibertsitatean. Alabaina, ez da bere bizitza ikasten eman duen horietakoa eta hainbat erakusketetan parte hartu izan du artista honek; besteak beste, Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen duen artista gazteentzako Ertibil (2005), Getxoarten (2005 eta 2006) eta Madrilen egiten den Notodofest Argazkilaritza Kolektiboaren I. Jaialdian bere lana aurkezteko hautatu zuten. Halaber, Bilboko Topaleku III. Argazki Lehiaketan bigarren saria eskuratu zuen 2005ean. Oraindik gaztea den arren, bere lekutxo egin du mundu profesionalean eta egindako lana hainbat publikaziotan ikusteko aukera daukagu, besteak beste, Madrilgo Diseño Interior aldizkarian, "Palpar la sugerencia" izenburupean.



«Bakardadea, ohitura txar guztien iturria» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Hondartza. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Esti Ezkerra. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Usategi parkeko taberna.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Ander Berreteaga.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Kantuketan, Peru Urresti.
28. ARGAZKIA. Esne-saltzailea.
30. BERBETAN. Mikel Fejoo Elzo, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Hormak garasika, Algortako Irudi Taldea.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Angel Illaramendi.
43. MUSIKA. Noizean Behin taldea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Juan Perez de Lazarraga. Liburuaren erreseinak.
45. KIROLAK. Yahaira Agirre.

EUSKARAZ


46. ELKARRIZKETA. Mikel Martinez, Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Leioako Jokin tabernara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxo Saskibaloi Taldea 1982-83, Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Anartz Zuazua, Oiane Moran.



30 Mikel Fejoo Elzo



46 Mikel Martinez

Berbetan

Gernikarra, Skunk Funk arropa marka arakastatsuen sortzailea. Gaur egun mundu osoko 700 dendatan saltzen ditu bere diseinuak.



45 Yahaira Agirre



34 Hormairudiak



14 Oihane Garcia



54 Anartz Zuazua

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta

HELBI/IDEA: Amezti 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48911 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37

ZUZENDARIA: Jokin Aspuru

ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Olane Moran, Aritz Bregel

FOTOGRAFIA: Asier Mentraka

TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria

KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Amaia Ariaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.

MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez

PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)

KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta

FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF

LEGE GORDAILUA: BI-1878-00

ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko partaidea da

	<p>Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskaraz elkartearen dirulaguntza jasotzen du</p>	
<p>Itxasgane Etxea / Karitatea 1 94 491 43 57 / 48990 Algorta</p>		

	<p>Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
---	--

	<p>Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du</p>		<p>Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du</p>
--	--	--	--

	<p>Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>		<p>Aldizkari honek Erandioko Berbots Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du</p>
---	--	---	--

	<p>Aldizkari honek Gortzoko Udalaren dirulaguntza jasotzen du</p>		<p>Aldizkari honek Sopelako Udalaren laguntza jasotzen du</p>
---	---	---	---

	<p>Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du</p>
---	---

	<p>Aldizkari honek Eroski Fundazioaren Kultura Salaren dirulaguntza jaso du</p>
---	---

	<p>94 491 13 37 uk@aldizkaria.biz</p>
---	---

gugeu

Ale honetan

Udaberri bete-betean gaude eta arropa marka guztiak zalaparta handiz euren proposamen berriak iragartzen hasiak dira. Honen harira, Euskal Herriak eman duen markarik ospetsuenaren berri ekari nahi izan dugu azken UK honetara. Marka hori Skunk Funk da eta bere arduraduna Mikel Feijoo Elzo gernikarra. Errigoitiko baserri galdu batean daukate koartel jenerala Skunk Funk-ekoek; han diseinatzen dituzte gero munduko makina bat bazterretan saltzen diren arropak eta osagarriak.

Munduan zehar ere, eta antzeko arrakastarekin, ibiltzen da Yahaira Agirre judoka algortarra. Bere eguneroko ahaleginaren saria jasotzen hasi da orain Yahaira eta, esaterako, bere mailan munduko hirugarrena sailkatu da Ingalaterran egin berri den leihaketa batean. Orain, datozen Olinpiadetan parte hartzea da helburua. Munduan zehar ere, baina beste zeregin batzuetan ibiltzen den Oihane Garcia gazte internazionalista ezagutu nahi izan dugu. Askapena taldeko kidea da bera eta hain ahaztuta daukagun herrien arteko elkartasuna izan dugu hizpide.

Askoz ere gai gehiago jorratu ditugu zenbaki honetan baina ez genuke hemen aipatu barik utzi nahi Mikel Martinez aldizkari honetako argazkilaria ohiak plazaratuko duen *Getxoko jaiak. Photoalbum 2005* liburua. Ez dugu liburua ikusteko aukerarik eduki baina Mikelen lana ezagutzen dugu eta zalantza barik liburu ederra izango da, seguru. Gainera, Una Elorriagaren testuekin datoz argazkiak.

Hurrengora arte. 4

UK-ko lantaldea

irakurleak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

matematika aplikatua



Goizero irakurri > berria



PORTU ZAHARRA, 2006KO APIRILA

Eguzki maitea / Euria erregina den paraje hauetan ohikoa da udaberriak eskaintzen dituen lehenengo eguzki izpiakaz jendea hareatzen etzatea, neguko tristura grisa poroetatik kanporatu gura balu legez. Antzinako euskaldunek euren modura gurtzen zuten eguzkia, Ekhi jainko erraldoia. Egungo euskaldunak ere eguzkia gurtzen jarraitzen du, arrazoi estetikoago bategatik bada ere. Hala eta guztiz ere, ez du bere jatorrizko esanahia erabat galdu: bizitzaren sortzailea da izarra eta guk bizitasunaren bila jotzen dugu berarengana. m / Argazkia: **Asier Mentraka**

Leihatila

> Maddi Albizu

Funtsean berdinak

Sakelako telefonoen kolore desberdinetako karkasek beti eman didate zer pentsatu. Kontu jakina da nonahi inguratzen gaituen publizitatea gizakiok ditugun baloreetan oinarritu ez ezik balore iturria ere badela. Ez dut ondoegi gogoratzen zein garagardo marka den, baina gogoan dut taberna bateko mutur batetik bestera doan gazte hori, eskuetan garagardo bi daramatzala, galtzontziloak agerian. Ingurukoek ikusi eta zass! Hori da ideia ona aizu! galtzontzilo guztiak kanpora!! Gizajo halakoak!! Ez dira ohartu ere egin poltsikoetan zeramatzen garagardo parearen zamaren eragina zela praktik jaitzita eramatearen arrazoiak. Berriz ere galtzontziloak gora! Mezua: izan zan/k estiloa! Sakelako telefonoen karkasak saltzeko ere mezu hori baliatzen du publizitateak: izan zaitez desberdin! Eta guk, sinistu. Gizajo halakoak! Ez gara ohartu ere egin karkasa kontuetan desberdinak izan aren funtsezkoan berdin-berdinak garela. Ez al daukagu denok sakelako mobila? Metafora polita da azaltzeko publizitateak zelako erosleak sortu nahi dituen: desberdinak kanpotik eta berdinak barrutik. 4

IRITZIA

“Zer eskatzen diozu egun berri bakoitzari? Zeintzuk dira goizero ohetik altxatzeko zure arrazoiak?”. Gai hau proposatu diogu hainbat laguni. Oraingoa Esti Ezkerraren txanda da.

Ohetik ateratzeko zenbait arrazoi poetiko (II)

* Mikel Basaberentzat

Ohetik altxatzeko arrazoi bat egun elurtu batean: liburu on bat lagun, sutondoan esertzeko aukera. Ahal dela, liburu hori ez dadila Melvilleren *Moby Dick* izan, hura irakurrita nahiko tragikoa irudituko baitzaigu elurra. Zuria da Ahab kapitainaren amesgaiztoa den balea, elurra bezain zuria. Ez da kasualitatea. Antzina, arazo ekarle besterik ez zen elurra: inkomunikaturik uzten zituen etxeak, errekek izoztu eta eragotzi ehiza. Anjel Lertxundiri entzuna diot umetan ez zegoela elurrak adina beldur eragiten zionik, hain gorri bihurtzen baitzuten orduko neguak! Atxaga ere iritzi berekoa dugu; bere esanetan, elurra mara-mara ari duela ederra iruditzen zaigu bere zurtasuna, baina behin lurrean metatzen denean, laster hasiko da lohitzen oinatzen eraginez... Baina tira, gera gaitezen hasierako inpresioarekin.

Ohetik altxatzeko arrazoi bat egun sargoritsu batean: dutxa freskagarri bat hartzea. Eguneko memento bat aukeratu beharko banu, ez nuke zalantzarik izango: goizeko dutxa da gehien estimatzen dudana. Azala aldatu berri duen sugea bezala sentitzen naiz ura gorputzan behera nabaritu ahala, eraberritu, indartsu, alai. Eguna sargoritsua bada, are bortitzagoak dira sentsazioak. Ingalaterran ezagutu nuen argentinarrak dakarkit honek gogora.

«Ohetik altxatzeko arrazoi bat edozein dela eguraldia: egun handia izan daitekeen ustea»

Berak ere gustuko zuen goizeko dutxa, eta deprimituta zegoenean, berdin zitzaion ordua, bainugelara jotzen zuen zuzenean, dutxa azpian jartzera. Eta antza denez, trikimailuak ez zion hutsik egiten.

Ohetik altxatzeko arrazoi bat edozein dela eguraldia: egun handia izan daitekeen ustea. Esaten dute eguraldiak, baita urtarok ere, nolabaiteko eragina dutela pertsonen aldarteetan, eta neurri batean ados nago uste horrekin, baina iruditzen zait norberak ere izan baduela eskuhartzerik horretan. Jarrera baikor batetik abiatzea nahikoa izan daiteke egunik goibelenari ere buelta emateko. Pentsatu ez gaudela bakarrik, beti dagoela norbait, inguruan, gure pozak eta kezak konpartitzen dituen. Izan daiteke familiako bat, lagun bat, bikote kidea, edo, besterik gabe, goizero autobusa hartzera goazenean irribarre egiten digun gidaria, ohituraren poderioz, kasik familiakotzat jo dezakeguna... 4

Esti Ezkerra

photoshop > Gorizko hondartza handituta

Irudiak eta manipulazioa: A. M.



GETXOKO UDAL LIBURUTEGIA



ASIER MENTAKA

Iraganez doa denbora* beti / USATEGI PARKEKO TABERNA

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > oh, baserritxo

Getxoko Ondategi baserria egoera negargarrian dago

Testua: **Xa2 Paia** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Pintada batek murgildu zaitu kanposantuko bakean, orain izarrak ikusten dira lehengo teilatupean. Zure hormetan gora sasia nagusitzen den artean, etxebizitza garesti dago Uribe Kosta partean.

Gazte ugari berrero eman nahiko lizuke bizitza, asko auzoko baserri zaharrak berpiztu nahian dabilta, baina zuregan hasi orduko hiru edo lau ekintza atea ixten dizute eta itsasora bota giltza.

Oh, baserritxo, hartu duzu bai bihotz barruan hainbat min, zer behar dugu gaurko Ondategi lehengo hura izan dadin? Zure barrutik sortuta hainbat euskaldun zintzo eta fin zu salbatzeko nola ez dugu behar zen adina egin?

* Doinua: Oh, baserritxo

**txistea** > irribarrea

Emakume hark alargundutakoan berreskuratu omen zuen irribarrea. Honela esaten omen zuen: –“Azkenean badakit senarrak non ematen dituen gauak!”

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)

bertsolaritza > Uribe Kostako gazteak BBK Sariketan finalistak

Ipar Uribe taldeak bigarren lekua eskuratu zuen (374 puntu) joan den martxoaren 31n Bilboko Bidebarrieta liburutegian egin zen Bertsolari Gazteen BBK Sariketako finalean. Han izan ziren, besteak beste, Jone Uria (finalista gazteenari saria eroan zuen), Peru Vidal, Arrate Illaro, Beñat Vidal, Miren Loizaga eta Itxaso Paia bertso eskolako ikasle saiatuak. Modu bizian jardun zuten taula gainean, han bildutako 60 bat lagunak euren katuakaz ase guran. Sari nagusia, berriz, Durangaldeko taldearentzat izan zen bigarren aldiz (408 puntu), iaz ere irabazi zuen-eta. Aurten, sei taldetan banatutako 40 gaztek hartu dute parte Bizkaiko Bertsozale Elkartek, Bizkaiko Ikastolen Elkartek eta BBK-k antolatzen duten txapelketan: Bilboalde, Arratia, Busturialde, Lea-Artibai, Ipar Uribe eta Durangalde. Saio guztietan bertsolariak maila bitan banatuta egon dira: 18 urtetik beherakoak eta 23 urte artekoak. Finalean saio polita egiteaz gain, maila altua erakutsi zuten parte hartzaileek eta aipatzekoa da Ipar Uribeko taldeak doinu berriak ateratzeko egindako ahalegina. Aurten, oso ondo ibili diren arren, ez dute zorterik eduki. Ziur datorren urtean saria lortuko duzuela! m



Beñat Vidal, Jone Uria, Arrate Illaro, Itxaso Paia eta Peru Vidal

saiaz getaria



HOTEL

Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



..haria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

natura > Gorrondatxe hondartzako apo lasterkaria

Gorrondatxe hondartzan aurki dezakegun apo lasterkaria

Bufo calamita edo gure artean apo lasterkari legez ezagutzen dugun anfibioak maletak egin eta gure artera etorri zen bizitzera; izan ere, ez da ohikoa Gorrondatxe hondartzan eta Txingudiko badian aurkitu duten animalia mota hori hemen topatzea, bere jatorrizko bizilekua hegoalderago dago-eta. Espeziea orain dela 25 bat urte aurkitu bazuten ere, adituek oraindino ezin izan dute argitu misterio horren zergatia. Hori dela eta, Xabier Buenetxea Getxoko biologoak, Aranzadi Elkarteak eta Getxoko udaleko Ingurugiro Arloak ikerketa berezia jarri dute martxan. Horretarako, biztanleria aztertuko dute, animaliek ugaltzeko erabiltzen dituzten putzuak zainduko dituzte eta inguruan izan daitezkeen harrapakariak kontrolpean izango dituzte. Halaber, hondartzara hurbiltzen den jendea informatzeko kanpaina abian jarriko dute. m

telebista > Josu Larrañaga algortarra Mihiluze saioan

Datorren apirilaren 19an, bigarren finalurrekoa jokatu dute Kike Amonarrizek ETB-1en gidatzen duen Mihiluze saioan eta han izango da, besteak beste, Josu Larrañaga algortarra. Saioa oso garrantzitsua da, lehia irabazten duen hirukoteak finalerako txartela lortuko duelako. Beti legez, hiru talde izango dira aurrez aurre: Mendebaldea, Pasai Donibane eta Lasarte Oria. Larrañagak Mendebaldea taldean jokatu du Lekeitioko Koldo Rodriguezegaz eta Muxikako Iñigo Alberdigaz batera. Final handia maiatzaren 3an jokatu dute eta irabazten duen hirukoteak Igorreko taldearen aurka egin beharko du, oraingoz sailkatu den talde bakarra da-eta. Sari nagusia 18.000 eurokoa da, txapeldunordeek 4.000 euro eskuratuko dituzte eta hirugarrenek 1.000 euro. m

Eskumatik hasita lehenengoa da Josu Larrañaga

[erretratua]



"Foronda da orain Espainiako arrantza-porturik handiena, hala diote behintzat"

Ander Berreteaga > arrantzalea

Barrikan jaio zen, Gorlizen bizi da, Plentziako portuan dauka ontzia eta Armintzako Kofradiako presidenteordea da. Ia-ia derrigorrez ekari behar genuen Ander Berreteaga, izenaren erdia Kosta duen eskualde bateko aldiria izanda. 53 urteko gizon honek 25 daroaz arrantzale; "metal-perforazio lantegi batean nembilen, baina hura desagertu eta itsasora jo nuen", gogoratu du, eta aldaketa sano handi horren azalpena emon digu berehala: "Itsasoa beti eduki dut gustuko". Eduki behar, ez da-eta lanbide goxoa. Gaurko gazteek ez ei dute arrantzan gura, eta Berreteagak ez die kargurik hartzen. "Aitzitik, semerik eduki banu -alaba baten aita da- ez nion sekula utziko itsasoan ogibidea bilatzen". Ezkor agertu zaigu, ez bere buruaren errukiz -"nik eginda dauzkat neureak; onain urte batzuk itxaron eta erretiroa hartu"-, arrantzaren etorkizunagatik baizik. "Foronda da onain Espainiako arrantza-porturik handiena, hala diote behintzat", esan digu, bizitzarengandik mirari handirik eskatzen ez dionaren doinuz. Forondan daude arrain haztegiak, lehorrean; itsasoan, barriz, gero eta gitxiago harrapatzen da. Arrantzaren egin du gurean, edo egiteko zorian da, eta errua arrantzaleena euren da, Berreteagari jaramon egitera. Ez Prestige ez pitokeriarik. "Errua ontziena da, teknologia gero eta aurrenauagoarena, arrantza-debekualdiei kasu ez egitearena...". Larria, baina ulertzekoa Berreteagaren ustez. Arrantzaleek ere, denok bezala, zeozegaz bete behar izaten dute lapikoa. m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**



AIXERROTA BHI

24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK

ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztaian

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



Portu Zaharreko bide bihurgunetsua

Lau metroz zabalduko dute Ereagatik Portu Zaharrerako bidea; **itsasoari zenbateko hori kenduz** horma eraikiko dute, espaloia zabaltzeko eta bidegorria luzatzeko

Ereagatik Portu Zaharrerainoko bidea zabaltzeko proiektua maiatzean-edo esleituko du Udalak. Egitasmoak itsaso barru aldera 4 metro zabalerako "kaia" eraikitzea aurreikusten du. **Getxo Bizia herri plataformak kontrako mozioa aurkeztu du, besteak beste, "singera eta harkaitz gune aberatsa galdu, eta herritarrei alternatiben galdeketa egin ez zaiela" egotzirik.**

Itsaso barrura 4 metroz zabalduko dute La Olatik Portu Zaharreraino doan bidea: espaloia zabaldu, bidegorria egin eta 2 norantzako errepeida hartuko ditu. Argiztapena aldatu, saneamendu-sarea sartu eta aipatutako lan guztiarako aurrekontua 2.524.000 eurokoa da.

Getxo Bizia ez dator bat Udalaren erabakiagaz eta bertako kide Christian Reinicke azaldu ditu arrazoiak: "Aukera desberdinak zeuden eta txarrena aukeratu dute. Badakigu zerbaitek aztertu dutela, baina beste aurreproiektu eta ideiak ez dituzte plazaratu, ez dizkiete jendeari aurkeztu. Horrelako kasuetan, non itsasoari zati bat jan behar zaion, lehenengo alternatiba desberdinak probatzen ahalegindu beharra dagoela uste dugu; abantailak eta desabantailak zehatz-mehatz aztertuz eta plazaratuz; proiektu horrekin dena sapustu egiten da lehenengo kolpean". Kalteez ere jardun du, "itsasoari kentzea beti da kalte larria, harkaitz gune batzuk daude, gunerik aberatsenak mara arteko guneak dira, gune bereziak, non espezie bereziak sortu eta bizi diren; gero, gerta daiteke korranteak ere aldatzea, olatuek ibilibide txikiagoa izango dutenez, errebotea handiagoa



Itsasoari 4 metro kenduz, oinezkoentzat bidea 3 metro zabaldu eta metro 1eko bidegorria egingo dituzte

da, eta portuan olatu korrante handiagoak sor daitezke". Udaltzain ez zuten mozioa gai ordenean sartu, eta Reinicke aurreratu duenez, "Ingurugiroko alor desberdinekin harremanetan jarriko gara, Kostaldearen arduradunekin, Bilboko Portuarekin...".

Zarraoaren azalpenak

Getxoko Alkate Iñaki Zarraoak azaldu du zertan datzan proiektuak: "Hasieran ezer ikutu gabe zer egin aztertu genuen, adb.: norantza bakarreko bidea egin eta semaforo

«2.524.000 euroko aurrekontua dauka proiektuak»

bat jarri; baina ez zen egokia distantzia nahiko dagoelako eta semaforoaren denbora luzea izango zen, kotxe ilanak, oztipoak egongo liriteke, eta bidegorrinako lekurik ez. Beste aukera

egituna irtena edo hegal bat egitea zen itsasoaren gainetik, 2 oztipo zeuden: izugarri garestia zen, egitura ondo eusteko burdinak-eta lur barrutik sartu behar ziren; eta gero hori egiteko bidea denbora luzez itxi. Horregatik proiektu hau (horma egin eta barrukoia bete) aukeratu dugu, merkeagoa da eta ez duzu bidea moztzen. Itsasoari tokia kentzea nik uste ez dela astakaria, ez duzu horrenbesteko katerik egiten; ostera, singera eta Galdaretxe harkaitzak galduko dira, bai, baina harkaitzak dira eta urtero unibertsitateak lanak egiten ditu eta argi dago hor bizirik ezer gutxi dagoela. Pertsonen alde lan egin behar dugu, naturari ahalik eta kalte gutxien egin; lortuko dena kalte baino askoz handiagoa da". Olatuen ibilbidea alda daitekeela-eta zera dio Zarraoak: "Horma barrunago baina modu berdinean jarriko dugu, onain era batera jotzen badute gero ere era horretara joko dute". m

Zabortegei ohia

800.000 tona zabor gelditu dira lurrazpian eta aurrerantzekoak, behin-behinean, **Jatara ei doaz**



Alkatea kazetarietaz azalpenak ematen

Larrañazubiko zabortegei ohia berba batu beharko diogu oraindik, atzerapen dextentegaz bada ere, azkenean itxi egin dute-eta Getxoko zaramategia. Ia 40 urtean 800.000 tona hondakin hartu ditu zabortegeiak, material bereziz estalita eta lurrazpian daude dagoeneko. Halere, arduradunek azaldu dutenez, zaborraren deskonposizio prozesua dela medio eta bitarteko bereziak ipini badituzte ere, beste 25 urtez jagon beharko dute egoera. Bitartean, Larrañazubiko ingurua berreskuratzeko asmoa dauka Udalak, 200.000 metro koadroko parke natural bihurtzeko. Pasealekuak eta berdeguneak egongo dira, Ingurumen zentroa eta puntu-garbia (hondakinen gaikako bilketarako eta birzikletarako zentroa, Garbigune-

aren osagarri, hurrengo hileetan ipiniko ei dute abian). Aipatutako guztiaren kostua 3,5 milioi eurokoa da (%80 Europako dirulaguntza). Horren albotik, zabortegeia ixteagaz batera, Transfer planta (hondakinak txikitzeko egitura) ipini dute martxan.

Alabaina, berria begi onez hartzekoa bada ere, badaude kontuan hartzeko albo-ondorioak ere. Aurrerantzean Aldundia arduratuko da Getxoko hiri hondakin solidoen batze eta tratamenduaz. Zerbitzu horregatik urtean 1,8 milioi euro inguru ordaindu beharko ei du Udalak eta ondorioz getxoztarren zabor tasa %86 igoko dute. Horrez gain, Aldundiak eta Udalak adostutakoak ez du argi zehazten zaborrak zein tratamendu izango duen, ustez behin-behinean Jatara zabortegeira eroango dituzte. m

GAL-EK HILDAKO XABIER GALDEANO GOGOAN

Orain dela 21 urte GALek hil zuen Xabier Galdeanori omenaldia egin zioten joan den martxoaren 30ean, Telletxe plazan. Jatorriz algortarra zen, baina Egin egunkarian egiten zuen lana zela eta Espainiako Poliziaren mehatxuak areagotu zirela ikusita, Miarritzer alde egin behar izan zuen. 1985eko egun hartan, GALek Les Pyrenees kafetegiairekin kontratu egindako atentatu salatzeko Baionan antolatutako manifestazioan egunkarirako argazkiak ateratzen ibili zen Xabier. Handik ordu batzuetara hil zuten, bere etxearen ondoan eta bere bi alabak beragaz zeudela.

CARITASEK 1.700 PERTSONA LAGUNDU ZITUEN IAZ

Joan den urtean 1.700 pertsonen Caritasen Getxoko 200 boluntarioen laguntza izan zuten; alabaina, arduradunen esanetan, oraindik lan handia dago egiteke. Eskualde honetan ere bazterketa ematen dela argi utzi nahi dute Caritasekoek eta horri aurre egiteko "Acogida" eta "Norabide" programak jarri dituzte martxan, aholkuak emateko, lana topatzeko... Arduradunen arbera, zerbitzu horiek erabiltzen dituzten gehienak emakumezkoak eta atzeritarrak dira. Umeentzat, berriz, "Kukua" deituriko programa sortu dute, besteak beste, zailtasunak dituzten haurrei ikasketekin eta eskolaren eta familiaren arteko zubi lana betetzeko.

LONJAK ETXEBIZITZA BIHURTZEKO ORDENANTZA

Lonjak etxebizitza bihurtzeko ordenantza ekainerako indarrean egotea espero du Getxoko udalak eta, besteak beste, data horretatik aurrera geldiarazita zeuden baimenak bideratu ahal izango dira. Halaber, eraikinetako lonjek bete behar dituzten baldintzak arautuko ditu: neurriak, garaiera, leiho kopurua... Alabaina, lege berriak ez du bereizten non burutu daitezkeen lanak eta non ez.

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokoa
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

VIEJO

kopak eta giro jatorria

Alangobarrri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Salsidu

kaleko **arrapala mekanikoak** jartzeko proiektuen lehiaketa

Salsiduko sarbide mekanikoen proiektuaren idazketa lehiaketara atera du Getxoko udalak. Ollarretxetik Villamontera joango diren arrapalak eraikitze proiektuaz gain, lanak esleitze jarraitu beharreko irizpideak eta etorkizuneari sarbideak era egokian mantentzeko ideia azaldu beharko du lehiaketara aurkeztzen den enpresa orok. Horrez gain, proiektua burutuko duen enpresari utziko dio Udalak zerbitzu teknikoek sarbideen inguruan egindako txostena. Horien ustez, lanek kaleko

«Urte honen amaierarako lehiaketara atera gura dituzte proiektuok»

ezkerreko espaloian hasi beharko lukete eta eskumakoan amaitu, bertako garajeetako sarrerak ez oztopatzeko.

Villamonteko sarbide mekanikoak eraikitze proiektua aurrera ez badoa, (auzokideekin hitzarmena lortu behar dute), horren aurrekonua Salsiduko egiteko erabiliko da.

Maria Cristinako igogailuagaz eta Bidezabaleko arrapalakaz, aurrera eroango duten hirugarren lana da eta, etorkizunari begira, beste lan bi bideratzea espero dute Udaleko ordezkariak: Aiboatik metro getokirainoko sarbideak eta Portu Zaharrekoak. Salsidu kaleko lanaren proiektuak urte honen amaierarako lehiaketara atera gura dituzte. ^m

Salsiduko aldapa



Oihane Garcia > Askapenako kidea

“Beste herriei elkartasuna adierazten diegu eta gure herriarekiko jaso”



Soziologian lizentziatua da Oihane

Oihane Garcia getxoztarrak 5 urte inguru daroaz Askapenaren eta bere ahotik ezagutu gura izan ditugu erakundearen ibilbidea eta ekimenak. Aurtan Kuba, Chiapas, Venezuela, Bolivia, Kuna, Uruguay, Argentina, Wuallmapu (maputxeak), Irlanda... eta agian lehenengoz, Portugalerako brigadak antolatuko dituzte.

—Zer da, zein helburugaz jai zen Askapena?

—Labur-labur, herriekiko elkartasuna praktikatzeko duen erakunde internazionalista da, ezker abertzalekoa. Orain hogeita piku urte jai zen Nikaragua, El Salvador, Guatemala, oro har Erdialdeko Amerikan zeuden proiektuak segitzeko eta elkartasuna adierazteko, gero beste norabideetan hedatu zen. Elkartasuna, geuk ulertzen dugun moduan, joan-etorrikoa da. Che Guevarak esaten zuen bezala, elkartasuna herrien arteko xamurtasuna da. Elkartasuna beharrezkoa da herriak libre izateko, eta burujabetza mantentzeko. Gure elkartasuna ez da karitatezko ekintza; elkartasuna adierazten dugu eta berau gure herriarekiko jaso. Gure herrialdearen alde egitea da elkartasunik onena, horrela lortuko dugulako besteak ere libre izatea, sistema hori lortzea, guztientzat komenigarria. Ez du-

gu beste nonbaitera joan behar gauzak nola egiten diren esatera, ikastera joan gaitezke, prozesuan laguntzeko; baina indarra Euskal Herrian jarri behar dugu, benetako prozesu askatzaile eta sozialista batean sartzeko. Horrek guztiak urruntzen gaitu erabat GKE-etatik. Euren proiektuak dituzte, normalean finantziatuak, lanera doaz irizpide eta helburu konkretuekin (batzuetan argiak, besteetan ez hain agerikoak), karitatezko, soberrako laguntza da.

—Brigaden bidez egiten duzue lan.

—Brigadak nolabait elkartasun tresnak dira; Euskal Herrian gertatzen dena azaltzeko, salatzen; eta Euskal Herrian brigadisten bitartez beste herrietan zer gertatzen den jakiteko, nola bizi duten prozesua, zein ikasgai har ditzakegun kontuan, han nola egiten duten lan jakiteko, eta konpartitzeko. Bestalde, nahiz eta brigada talderik ez osatu, inor joan daiteke beste herri batera

«Eskualdean internazionalismoa lantzeko talde bat sortzekotan gaude»

brigada talde banik eta brigadistaren lana egin. Amaitzeko, brigadetan izena emateko aukera hil amaiera arte dago (94 433 28 80). Gainera eskualdean talde bat sortzeko asmoa daukagu.

—Orohar Latinoamerikan diharduzue.

—Askapenaren hasieran prozesu iraultzaile gehienak hantxe zeuden, bertan dagoeneko harremanak daukagu, badago nolabaiteko azpiegitura aspalditik. Gero, Sahararekin nolabaiteko harremana izan dugu, baina egiteko horretan ari den talde bat bada hemen. Iraken auzia ere jarraitu dugu, “Gemika bat oparitu” zientean elkartasun taldea bidali genuen, beste bat Palestinara... Ez dira brigadak, momentu jakin batean sorturiko taldeak baizik. Batzuetan egorak berak derrigortzen gaitu puntualak izatera. Horrez gain, Europako konstituzioaren kontrako kanpaina egin genuen, Irlanda, Korsika eta Britainiarekin harremanak eraiki, etab. Garrantzitsua da daudenak mantendu eta apurka beste herrialde batzuetara heltzea. ^m

Indiar danborren doinura

Liburu Azoka antolatu dute udal liburutegiek eta liburu-dendek **apirilaren 21etik 23ra**



Liburuak %10eko beherapenagaz eskuratu ahal izango dira Liburu Azokan

Urtero legez, apirilaren daukate hitzordua irakurzaileek Algortako Geltoki plazan. Getxoko udal liburutegiek eta hainbat liburu-dendek Liburu Azoka egingo dute hileko azken aurreko aste-akabuan (11:00-14:00 eta 17:00-21:00). Liburuak %10eko beherapenagaz eskuratzeko aukeraz gain, udal funtsa ere izango dute eskuragarri maileguz zerbitzuaren bitartez.

Hil hasieran haurrak izan ziren liburuaren lurraldeko pribilegiadun herritarak, eta oraingoan gazteei eta helduei begira ipiniko dira letren enbaxadoreak. Beti ere irakurzaletasuna eta liburuaren erabilera bultzatzea da asmoa.

Urtero-urtero antolatzaileek gai bat aukeratzeko dute Azoka atondu eta horren inguruan

ezagutza sakonagoa eskaintzeko helburuagaz. Aurtengo honetarako hautatu dutena Ipar Amerikako jatorrizko herrien bizitza izan da. Horrenbestez, indiarren karpas antzekoak paratuko dituzte eta herrixka indiarren itxura hartuko ei du Geltoki Plazak. Horren bidez, Ipar Amerikako lautada mugazinetan bizi ziren herrien hizkuntzak, ohiturak, kultura... ezagutarazi eta getxoztarrengana hurbildu gura dituzte arduradunak. Karpas antzekoak, jolasak, margotzeko gunea, ipuin eta abesti indiarren ikasteko aukera eskainiko dute.

Beraz, letren lautadetan eta mendilerrotan, berben borrokaldi zein bakealdietan... literatur pipatik gozatu gura duenak badaki non eta noiz daukan asanblada. ^m

ITXAS ARGIA MENDI TALDEAK POSTONTZI BAT IPINIKO DU BINBALET MENDIAN

Zuberoako Binbalet mendiko tontorra (1.750 metro) aukeratu du Itxas Argia mendi taldeak bere azken postontzia ipintzeko. Getxoko taldeak seigarren urtez jarriko du ikurra, Getxoko udalak Aixerrotaren irudiagaz emandako postontzia. Dagoeneko Nafarroan, Bizkaian, Gipuzkoan, Lapurdin eta Behe Nafarroan jarri dituzte, beraz, behin azkeneko hau paratuta, Araban ipintzea baino ez zaie geratzen, Euskal Herriko lurralde guztietan postontzia egon dadin. Ekimen horren helburu nagusia ingurua ezagutzen ez dutenei informazioa ematea eta mendizaleen arteko elkartasuna sustatzea da.

JENDE GEHIAGOK JASOKO DITU EUSKARA SUSTATZEKO DIRU LAGUNTZAK

Aurtan akademietako, haurtzaindegietako, parrokiatako eta lanbide liberaletako beharretan ere jaso ahal izango dituzte herriaren euskara sustatzeko Udalak ematen dituen diru laguntzak. Udalbatzak bere oinarriak onartu eta 110.000 euroko laguntzak emango ditu bi ataletan banatuta: alde batetik, beharretan (merkatariak, irakasleak, osagileak...) euskara ikasteko aukera izan dezaten laguntzak eta, bestetik, Udalak eskaintzen dituen zerbitzu batzuen bitartez euskara sustatzeko laguntzak. Horrez gain, euskaltegiatiko matrikula aurretik ordaintzeko zailtasunak dituztenek ere, dirulaguntzaren zain dauden bitartean, zenbait abantaila izango dituzte ikastaroak ordaindu ahal izateko.

PORTU ZAHARREKO JAI BATZORDEAK BATZARRAK HASIKO DITU

Jaiak antolatzeko batzarrak apirilaren 25ean hasiko direla jakinarazi du Portu Zaharreko Jai Batzordeak. Bilerak 20:00etan izango dira Algortako Kultur Etxean.



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)

Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es



Torre 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Valentin Atxotegi > Leioako Musika Eskolako eta Kontserbatorioko zuzendaria

“Etorkizuneko musikari profesionalak prestatu behar ditugu, bestela amateurak izango dira denak”

Biolin, biola, biolontxelo, kontrabaxua, egurra, metala... Egunero 17 musika tresnen soinua entzuten dira Kontserbatorioko pareten barrena. 650 ikasle eta 45 irakasle dabilta han instrumentuei notak ateratzen. Zentro honek Goi Mailako musikariak sortu ditu irakasle eta or-

«Gurea zentro mistoa da, musika eskola eta kontserbatorio»

kestrako profesional moduan. Benetan ospea irabazita du Leioako Musika Eskolak eta Kontserbatorioak. Martxoaren 25an, esaterako, Elgoibarren eta Donostian bost sari irabazi zituzten zentroko ikasle batzuek.

—Zentro hau berezia da. Zergatik?

—Hau zentro mistoa da. Alde batetik, musika eskola (ez-arautua, ludikoa) da eta bestetik, kontserbatorioa (hezakuntza arautua) da. Beste lekuetan normalean Musika Eskolak izaten dira. LOGSE (1992an) ezartzean Kontserbatorio gehienak Musika Eskola bihurtu ziren. Gu Kontserbatorio izaera mantendu genuen eta Musika Eskola ere ezarri genuen. Euskadin beste halako bi daude soilik.

—Zer irakaskuntza eskaintzen duzue?

—Ume guztiak zazpi urteaz musika eskolan hasten dira. Eta gero hirugarren kursoan badauzkagu bi bide umeez aukera dezaten: arrunta eta irakaskuntza indartua. Azkeneko hau egiten dute normalean interes eta motibazio han-



Argazkian, Valentin Atxotegi eskolako ikasleez inguratutik

dia dutenek eta musika tresnarekin denbora gehiago ibiltzen dira. Amaitzen denean irakaskuntza indartua -12 urterekin- kontserbatorioan sartzeko proba bat (Maila Ertaina) egiten dugu. Gai inditzen ez dutenek Musika Eskolan jarraitzen dute.

—Motibazioa aski da musikari aurrera egiteko?

—Baldintza normalak eduki behar dituzte umeez eta gero inportanteena gogoa da. Gogoa eta lana. 7 urterekin hasten dira, eta bat-batean 12 urterekin umeez harrapatu egiten dituzte musikariak. Eta gainera oso giro ona daukagu ikasleentzatean.

—Prestigio handikoa omen da Leioako Mu-

sika Kontserbatorioa?

—Aurten Musikenera sartzeko frogetara (Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegia, Donostian) gure zentrotik zazpi ikasle joango dira eta beste bi Alemaniara eta Ingalaterrara. Hauek seguru asko profesionalak izango dira etorkizuneko. Apur bat gure mailaren erakusle diren datuak dira. Orkestra askotan ditugu ikasle ohiak eta irakasle lanetan ere asko dabilta han hemen. Izenak aipatzearen, Oskar Espina klarinete-jotzailea (Ameriketako), Luis Alberto Requejo (Bilboko Orkestra), Galiziako Goi Kontserbatorioan ikasleren bat dugu, eta abar. m

Denda txikien alde

Herriko saltoki txikiak sustatzeko plan berezia abiarazi du Leioako Merkatarien Elkarteak



Argazkian, Jean Paul Olmos Leioako Merkatarien Elkartearen kidea

“Saltoki txikiak begira oinarritutako estrategia baten beharra ikusi genuen eta batzartzen hasi ginen”, planaren sorrera azaldu digu Jean Paul Olmos Leioako Merkatarien Elkartearen kidea. Plangintzak merkatarien zailtasunak, beharrak, eta zerbitzuaren kalitatea hobetzeko bideak jasotzen ditu. Irekitzeko ordutegi eta egunak, saltokien barne gestioa, bezeroak leial izan daitezela lortzea, merkataritza ibilbideak sortzea eta kontsumoko ohitura berrietara egokitzea dira, besteak beste, plangintzak jasotzen dituenak. Beste jarduerak batzuk ere planteatzen dira: irudi kanpaina bat abiaraztea, teknologia berriak sartzeko eta estetika hobetzea.

Gaur egungo merkatarien egoera egonkorra dela eta hazten dabilela adierazi digu Merkatarien Elkartearen kidea. “Lehen Leioa lotarako herria zelako esana pixkanaka zuzentzen doa, gero eta gehiago leioaztarrek bizi-modua egiten dute herrian bertan. Kontua da 30.000 biztanleko herri batean gaudela baina jende askok ez duela herrian bertan erosten”.

Izan ere, Jean Paulen iritziz herriko denek badituzte abantailarik zentro erraldoien aurrean eta horiek azpimarratu behar dira. “Komertzio txikien espezializazioa handiagoda eta bezeroarekiko arreta hurbilagoa, azken batean, produktuak antzekoak dira leku guztietan alde bezeroarekiko arretan dago”. m

LAMIAKO MASKARADA HOBETO EZAGUTZEKO

Aurtengo Lamiako Maskarada gertu dago. Urtero bezala -aurtengoa 27. urtea- maiatzaren azken ostiralean Lamiako auzoak magia, kondaira eta historia uzartzen dituen jaia ospatu du. Tradizio handiko festa honen inguruan gehiago jakiteko ekitaldi berezia eskainiko da Kultur Leioan hil honetan. Hasteko, Maskaradari buruzko erakusketa hil honen 24tik maiatzaren 14ra: pertsonaien jantziak, azalpenak eta bildutako argazki eta bideoak. Apirilaren 26an (Kultur Leioan 20:00etan) hitzaldia eskainiko dute Lamiako Maskaradako kideek. Eta 28an antzerki eta dantza ikuskizuna Kultur Leioan.

ATERPE: GAZTEENTZAKO JARDUERAK

Aterpe Leioako Gazte Bulegoak gazteentzako jarduerak antolatzen jarraitzen du. Maiatzaren 6an eta 7an, esaterako, Multiabentura asteburu pasan joango dira hainbat gazte Aterperen eskutik. Besteak beste, espeleologia, kayak eta paint-ballean ariko dira bi egun horietan. Bestetik, udara begira, irekita daude Bizkaiko Foru Aldundiak antolatzen dituen ekintzetan izena emateko epeak. Udalekuek (7-13 urte), Uda Gaztea (14-17 urte) edo Gazte Bidaia (14-25 urte) kanpainen parte hartu nahi baduzu Aterpen informazioa aurkituko duzu. (Kultur Leioako bigarren solairuan).

POP-ROCK VI. LEHIAKETA

Aurten ere arrakastatsua izan da musika lehiaketa. Izen emateko epea amaituta 150 talde baino gehiagok aurkeztu dituzte euren musika lanak Leioako VI. Pop-Rock Lehiaketara. Gainera, taldeen jatorriari begiratzen badiogu, behintzat, lehiaketak mugak gainditzen ditu. Leioako eta Euskal Herriko hainbat talde gain, Madrildik eta Bartzelonatik etorritakoen kopurua ere handia da. Ozeanoz bestaldetik, Argentinako eta Mexikoko taldeak ere badira lehiakideen artean. Gogoratu, aurtengo sei finalistek euren lanak zuzenean eskainiko dituztela maiatzaren 12an eta 13an.

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

ERROTULOAK



ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

e-mail: hirstab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Etorkinak ere euskaraz

Erandioko Euskara Zerbitzuak Aisha programa jarri du martxan, atzeritik gure artera etorri diren bizilagunek euskara ikasteko

Etxekoek ez bezala, gure artean bizi den beste herraldeetako jende askok euskara ikasteari ekin dio. Erandioko Udal Euskaltegia, adibidez, 22 bat pertsona eman dute izena gure hizkuntzaren eta kulturaren inguruan zerbait gehiago ikasteko. Gehienak Hegoamerikakoak dira eta Erandioko udalerriari bizi dira.

Euskara Zerbitzuak jarri zuen martxan ekimena eta eroldaturik zeuden etorkinei pertsonalizatutako propaganda igorri zien; berehala, dei asko jaso zituen. Azkenean, 20 urtetik 49 urtera bitarteko ikasle talde bi osatu zituen.

«Euskara seme-alabengatik ikastea erabaki dute askok»

Harrera ikastaroa da euskaltegiak eskaintzen diena; izan ere, gehienek euskaragaz lehenbiziko kontaktua izan gura dute, hizkuntza eta hura inguratzen duena arrotza egiten zaie-eta. Hainbat arrazoik bultzatu dituzte euskara ikastera, baina askok seme-alabak eredu euskaldunetan ikasten edukitzeagatik egin dute.

Martxoaren 7an hasi zituzten eskolak eta dagoeneko ikasleak euren buruak aurkezteko gai dira, koloreak eta zenbakiak ikasi dituzte... *"Ikasleak hemengoan antzekoak dira",*



Ikasle gehienak Hegoamerikatik datoz eta Erandion bizi dira

dio Jose Legarreta irakasleak, *"baina kontuan izan behar dugu hizkuntza guztiz arrotza egiten zaiela, sintaxia eta hurrenkeria, adibidez, zeharo ezberdinak dira"*. Horrez gain, klaseko lehenbiziko egunean hainbat aurreiritzigaz etorri zirela uste du irakasleak: *"Nabarmena, euskara ikastea oso gatsa dela"*.

«Klaseko lehenbiziko egunean hainbat aurreiritzigaz etorri ziren»

Eskoletan Habek argitaratutako material berezia erabiltzen dute, baina tarteka euskaltegiak bere lantresna propioak helarazten die ikasleei.

Behin atzerriko jendea euskaragaz kontaktuan jarrita, urte osoko ikastaroak antolatzea izango litzateke proiektuaren hurrengo helburua. *"Gure helburua hurrengo ikasturtean programa jarraitzea da, taldearen urte osoko jarraipena egin ahal izateko"*, azaldu digu Legarretak. m

Berbalagunak

Euskara **kalean erabil dadin** ekimena jarri dute martxan Erandioko hainbat eragile kulturalak



Erandioko biztanleen %18 euskaldunak dira eta %28 ia-euskaldunak

Guraso eta umeen artean euskara gehiago entzuten dela eta euskaltegiak matrikula kopurua igo dela ikusita, hizkuntzaren erabilera askoz gehiago sustatzeko Berbalagunaren ekimena jarri dute martxan Berbots Erandion Euskaraz Elkartek, Udal Euskaltegiak, Udalak eta gainerako eragile kulturalak.

Erandioko biztanleen %17,75 euskaldunak dira eta %28,29 ia-euskaldunak, beraz, ekimenak honako sektoreetara heldu nahi du: euskara ikasten ari direnengana, euskara ikasle ohiengana, euskaldun osoengana eta euskaldun zaharregana (bide batez, Erandioko hizkera ezagutarazteko). Egitasmoaren eremu geografikoak, berriz, Astrabudua, Altzaga, Erandio Goikoa, Arria-

ga, Goierrri eta Lutxana hartuko ditu.

Izena ematean, konpromisoa bermatuko duen agiri bat osatu eta akreditazioak banatu nahi dituzte programaren arduradunek, herrian Berbalagunaren irudia zabaltzeko eta herritarrek proiektura erakaritzeko. Halaber, ekimenaren izena daroan diseinu erabilgarridun poltsa bat oparitu dute.

Euskara landu dadin talde bakoitzean euskaldun oso batek egon beharko du eta taldekideek astero ordubeteko topaketa egiteko konpromisoa hartu beharko dute. Gainera, topaketen zein taldeen jarraipena egingo dute, behar berriak antzemateko eta proposamenak bideratzeko. m

Informazio gehiago: 944 890 128

FILM LABURREN JAIALDIAN IZENA EMATEKO EPEA LUZATU DUTE

Erandioko Film Laburren III. Lehiaketan parte hartu nahi duenak apirilaren 30era arte izango du izena emateko. Lanek 2005eko urtariletik gaur egunera arte egindakoak izan beharko dute. Aurkeztutako filmak maiatzaren 15etik 20ra egingo den zinemaldian erakutsiko dira, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean eta ekitaldi horretan banatuko dira sariak. Sariak 500 eta 1.800 euro bitartekoak dira. Txapelketan aurkezteko oinarriak Udaleko Kultura, Gazteria eta Kirola Arloan (Irailaren 23a plaza, z/g) daude eskuragarri.

ERANDIOKO JAIETAKO ARGAZKI ZAHARREN BILA DABILTZA

Erandioko jaien inguruko erakusketa osatzeko asmoz, antzinako argazkien, zapien, kartelen eta jaietako egitarauen bila dabilta Udaleko Kultura, Gazteria eta Kirola Arloa eta Gautxoriak taldea. Batzen duten materialarekin erakustaldia irekiko dute San Agustin jaietan. Lagundu nahi dutenek telefono zenbaki hauetara dei dezakete: 944 890 140, 679 353 690 edo 944 672 163.

ERABILERRAZTASUN LEGEA BETETZEKO LAGUNTZAK ESKATU DITU UDALAK

Erabilerraztasun Legea bete dadin erakundeek emandako laguntzak handitzeko PSEk egindako eskariarekin bat etorri da Erandioko udala. Eusko Jaurilaritari eta Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen dizkiote laguntza; izan ere, udalek kostuaren %90ri egin behar diote aurre eta, Erandioko PSEko ordezkarien ustez, oso handia da aurrekontu horiek lortzeko egin beharreko ahalegina. Beraz, indarrean dagoen eredu egokia ez dela uste dute, besteak beste, ez dituelako aurretik ezarritako gutxiengo helburuak lortu.

ERANDION
>berbalagun<

tel.: 94 467 27 81 (08:00ak aurrera, bitarteko laguntza)
mobila: 658 79 93 32 (Leire)
e-maila: berbalaguna@gmail.com
helbide postala: San Jeronimo 14 behea • Altzaga

Apirilak 27
Egitasmoaren azalpena
eta antzezlan txikia

17:00 h. - Altzagako euskaltegia
20:30 h. - Josu Murueta kultur etxean

ARLAN

Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

ARTISAUTZA AZOKA EGINGO DUTE MAIATZAREN 6AN

Maiatzaren 6an, zapatua, Artisautza Azoka egingo dute Larrabasterrako Urgitzieta plazan. Azoka egun osoan zehar izango da, 11:00etatik 15:00etara eta 16:00etatik 21:00etara. Guztira, 50 bat artisau egongo dira bertan euren eskulanak erakusten. Bestalde, bere produktuak salgai jarri gura dituen artisau orok apirilaren 28ra arte dauka bere proposamenak eta curriculuma Udalean aurkezteko.

Informazio gehiago: 94 406 55 00

GARAPEN IRAUNKORREKO PLANA EZTABAIDATZEKO FORO PUBLIKOA

Dagoeneko onartu den Garapen Iraunkorreko plana eztabaidatzeko foro publikoa jarri du martxan Udalak web orrian. Programa hauekin ingurugiroa hobetu gura dute udalek eta, onartutako proiektuetan herritarren parte hartzea ezinbestekoa denez, Interneten bitartez (www.sopelana.net) euren iritzia emateko aukera ematen die Udalak auzokideei. Aurretik ere, Sopelaren egungo egoeraren inguruko iritzia plazaratu zituzten bizilagunek eta, horrekin, ikerketa bat bideratu zuten.

LEHENENGO GOLF OPENA ANTOLATU DUTE SOPELAN

Datorren maiatzaren 14an, domeka, lehenbiziko Golf Opena egingo dute Sopelako hondartzan. Guztira, bederatziz zulo egingo dituzte eta 36 golfari lehiatuko dira. Alabaina, jarraitu beharreko arauak bereziak izango dira, hondartzako orografiara egokitu behar izan dute-eta jokoak. Halaber, Sopelara hurbiltzen diren guztiek parte har dezaten hainbat ekintza antolatu dituzte zapatarako. Besteak beste, minigolf bat jarriko dute pilotalekuan eta golfera jokatzeko ikasi gura dutenek aukera paregabea edukiko dute Udaletxeako plazan, han izango dira-eta hainbat irakasle.

Sopelako Auzokideen elkarte berria TAOren aurkako plataforma desegin eta aldarrikapen gehiago egingo dituen elkarteja jaio da



Sopelako Auzokideen elkarteko kideak. Harremanetarako: 695 742 493

Sopelarra (Sopela eta Larrabasterra batuz eta laburrean) da Auzokideen elkarte berriaren izen ofiziala, baina bertako kide Alejo Rojok azaldu legez, *“ez dute Sopela edota Sopelana ipintzen utzi, baina denontzat Sopelako Auzokideen elkarteja da”*. TAOren kontrako plataforma desegitea erabaki dute, horretarako arrazoiak, Rojok dioenez, hurrengoak da: *“Herritarrek hurbildu eta eskatzen ziguten beste gauza batzuk konpontzea edo beste gauza batzuen alde ere egitea, ez bakarrik TAOren kontra, anazo gehiago daude-eta udalerrian; horregatik, batzuek enabaki genuen Auzokideen elkarteja sortzea, beste batzuk ez zeuden ados, orduan*

plataforma desegitea erabaki genuen”. Ostera, horrek ez du esan gura TAOren kontra egiteari utziko diotenenik, *“beste aldarrikapen batzuen artean egoten jarratuko du TAOk; hori bai, mobilizazioak ez dira izango lehengo modukoak, beste era batera egingo dira gauzak”*, dio Rojok. Gaineratu duenez, elkarte-ko tiratzaileak 8 bat lagun dira baina euren inguruan laguntzaile talde handia dabil. Barikuak dituzte batzar egunak (19:30-21:00, Loiola Ander Deuna kalea 34) eta herritar denek hurbiltzeko eta euren ardurak azaltzeko deia luzatzen diete; bazkide egitea doan da, eta Rojok dioenez, *“bazkide asko edukitzea ona da indarna edukitzeko”*. m

Ibon Zorrilla > Trial

“Kataluniako eskaintza beti daukat gogoan, baina egindakoaz harro nago”



Zorrilla Meñakozen. Garcia Motos, Gas Gas, Hebo eta Galfer dira bere babesleak

Azken 8 urteotako Euskadiko trial txapel-dunari txikitatik datorkio zaletasuna. *“Bizikletagaz zoro moduan ibiltzea gogoko nuen eta trialsin (motor bako trialala) egiten hasi nintzen; hor lehiatu eta bitartean trialean entrenatzen nuen”*, diosku Ibon Zorrilla sopeloztarrak. Lehenengo trial txapelketa 18 urteagaz egin eta trialeko Euskadiko txapela burutatu zuen. Espainiako txapelketa 3. postua lortu zuen (1999) eta Mundialeko 18.a (2003). Halaber, profesional izateko oztoporik handiena ekonomikoa dela aitortu du, *“Kataluniara joateko eskaintza jaso nuen 22 urteagaz, baina dirua ipini behar nuen, bertan bizimodu egonkorra neukan, lana, dena utzi behar... ezezkoa eman nuen”*. Damu den itaunduta zera dio: *“Beti daukat gogoan, baina profesional modura Mundialeko lehen 8ak-edo bakarrik bizi daitezke; nire ibilbideaz harro nago, lortutakoa hemen gutxi lortu dute, bai emaitzen aldetik, baita babesle aldetik ere”*. Horretarako lan, sakrifizio eta esfortzu handia egin duela adierazi du. Halere, Euskal Herrian trialala ahul dabilela diosku, ezin alderatu Ka-

taluniagaz, *“motorrak zale eta babes gehiago dauzka han, hemen beste kirol batzuek dute jarraitzaileen estimua; ostera, euskal pilotuek postu onak lortu dituzte beti”*.

Bestalde, 30 urteagaz bere burua gazte ala erretiroari begira duen galdetuta horra erantzuna: *“Mailari dagokionez beti legez edo hobeto nabil, baina gogoak zelanbait ez dira lehengoak; ez diot lehiatzeari utziko,*

«Ingurua desegiten dugula-eta... hori norbanakoaren heziketa eta errespetu kontua da»

lesioek-eta ondo tratatu naute, eskuak dira minduen dauzkadanak”. Amaitzeko, trialekoek inguruak suntsitzen dituztela diotenen aurrean zera argudiatu du: *“Naturazalea naiz, kirolari moduan ere; egia da, badira zaintzen ez dutenak; agian trialala da beste motorren aurrean min gutxi egiten duena; azkenean norbanakoaren heziketa eta errespetu kontua da, ni normalean ez nabil beti leku berdinean, eta ingurua errekuperatzeko tartea uzten dut”*. m

DIDAK HAMILTON IDIOMAS

Ingelesa, Frantzesia eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
 - Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
 - Ingelesa 3 urteko aurrera
 - Talde txikiak
 - Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
didakhilton@euskalnet.net

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

ANDER DEVNA IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA
Tfnoa.: 94 676 02 66
Email.: sopela@ikastola.net

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

**LAIKAK
Taberna**

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

**SKATE IKASTAROA
ANTOLATU DUTE
UMEENTZAT**

Berangoko kultur etxeak skate ikastaroa eskainiko du hilaren 28tik ekainaren 2ra. Ikastaroa 6-10 urte bitarteko umei zuzendu diete eta 5-8 euroko prezioa dauka. Eskolak barikuetan izango dira skate pistan, ordu bateko iraupena edukiko dute eta 18:00etan hasiko dira. Antolatzaileek azaldu dutenez ikastaroa euskaraz egiteko aukera dago. Izena emateko epea hilaren 19an amaitzen da (Beste ikastaro batzuk ere badaude).

Informazio gehiago: 94 668 11 79

**HAUR PARKEAK
KONPONTZEKO ESKATU
DU EB-BERDEAK**

Berangoko Ezker Batua-Berdeak zinegotzi Koldo Martinezek umeen jolaslekuak konpontzeko eta mantentzeko eskatu dio Udalari. "Berangon haur parke asko eta handiak badaude ere, gabezia handiak daukate", adierazi du Martinezek eta ondorioz, "arrikuak saihesteko, atoan jolaslekuetako azpiegituren egoera aztertzeko, txarto edota apurtuta daudenak aldatzeko eta ostean mantentze-lanak egiteko" eskatu du. Udaletik azaldu dutenez, "sortutako arazoak behin-behineko gertaeren ondorio izan dira, eta ez ustezko uzkeriagatik". Gainera, ordezko piezak, lehengoak baino modernoagoak, heltzeko zain daudela adierazi dute.



Berango Gaua

Gaztelekuren programa berria martxan



Bariku arratsalde batez Gaztelekun batutakoak

Gaztelekuko erabiltzaileek, 13-18 urte bitarteko gazteek, zerbitzuaren ordutegia zabaltzeko eskatu zuten eta horri erantzunez jaino da Berango Gaua programa. Gaztelekuk bariku, zapatu eta domeketan zabaltzen ditu ateak, eta ohiko ordutegia 16:00etatik 20:00etara da. Martxo amaieran abian ipinitako Berango Gaua barikuetan egiten da 20:00etatik 23:00etara, hilean bitan. Lantegiak, eskulanak, ikastaroak... kaleko ekintzak zein barmualdeko jarduerak prestatzen dituzte gazteek, eta esan barik doa dena doan dela. Hala, arduradunek azaldu dutenez 30 bat neska-mutil batzen dira normalean Santa Anako Gaztelekun. Hurrengo Berango Gauakeko egitaraua,

hilaren 28rako, honako hau da: capoeira ikastaroa eta eskulan lantegiak. Ondorengo zita maiatzen 12an ipini dute, eta ordurako masaje, aromaterapia eta argazkilaritza digitaleko diseinu eta muntaketa lantegiak emango dituzte. Ostean, surf ohola puzgarri handi horietako bat jarriko dute kalean eta perkusio ikastaroa eskainiko dute, hori guztia maiatzaren 19rako iragarri dute.

Udako oporaldi aurreko azken hitzorduak ekainaren 16an eta 30ean izango dira eta hurrenez hurren egongo diren jarduerak hauek dira: karaoke txapelketa, barbakoa eta "Haizearen tunela" atrakzioa; baita diskoteka eta alkohol bako koktelak egiteko ikastaroa ere. m

Isuskitzako pasealekuaren auzia



Isuskitzako Inguru. Oraintsu berretsi du Auzitegi Gorenak EAeko Auzitegi Nagusiaren epaia.

Isuskitzan 61 etxebizitza eraikitze eta bidezidor bat pasealeku bihurtzeko auziari Txipio Bai talde ekologista eta Plentziako udala, Eusko Jaurlaritza eta proiektuaren sustatzaileak aurrez aurre ipini ditu epaitegietan. Zeozer argitu guran, Txipioko kide baten eta Plentziako alkate Nikolas Oñateren azalpenak batu ditugu. Oñatek horrela azaldu du: "EAeko Auzitegi Nagusiaren epaiak (2004) pasealekua egiteko xehetasun-azterketak ez zuela balio esan zuen; hirigintza dokumentua behar zela. Bi aukera genituen: anau subsidarioak aldatu edo pasealekua ez egin. Pasealekua egiten hasiak ziren, baina sustatzaileagaz eta Eusko Jaurlaritzagaz batu nintzen eta azken biok ez egitea erabaki genuen; sustatzaileak Auzitegi Gorenara jo zuten". Bestalde, Kosta Legeak babestutako eremuan sartu diren kritiken inguruan zera dio alkateak: "Hori erabakitze eskuduna Jaurlaritza da, eta baimena eman zuen". Halere, zera onartu du: "Baimendutakoaren eta egiten zebiltzanaren artean alde eztabaigarria zegoen; ezin esan perfektu zegoenik; gero lanak gelditu zituzten eta Jaurlaritzaren erabakia betetzen gabiltza: ipinitako harri-lubeta edo eskoilenaren zati bat atena,

behean jarritakoa estali eta bidezidorra eta inguru berreskuratua eta berlandatu". Txipiokoek auziari begiratzeko beste modu bat daukate: "Hondartza edo itsadarra ondasun publiko da, babestu beharrekoa; Kostaldeko Legeak dio ondasun hori amaitzen denetik eremu bat utzi behar dela, babesgune bat, Isuskitzako kasuan 20 metrokoa. Pasealekua horren barruan dago. Sustatzaileak etxeak babesgunearen muga-muga egin zituen, leku gehiena aprobetsatzeko, baina orduan harri-lubeta sartzeko lekuri ez zeukaten. Auzitegi Gorenara jo zuten denbora inabazteko, babesgunean harri-

«Aurreko epaia berretsi du oraintsu Auzitegi Gorenak»

lubeta egiteko, eta pasealekua egitearen arazoia hori da, harri-lubeta sartzea. Harri-lubeta itsadarretik 5 metrora enaiki dute babesgunearen 20 metroetatik 15 enabiliz. Hori egin zutenean sustatzaileak berak epaia itxoian barik uko egin zion paseari, gura zuena bete zuelako; non dago paseoa? Babesgunea errespetatzeko dago, ez zimentuak sartzeko, babesgunearen funtzioa bortzatu egin dute". m

ALERGIA

Cristian Amezaga Asensio
Sendagilea - Alergologoa

**RINITIS
ASMA
URTIKARIA**

Poliklinika Euskal Herria
Euskal Herria Kalea, 22
48991 Algorta-Getxo
Telef.: 94 491 34 62
I.M.Q.



**TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra**

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15



**Ajuria
taberna**

Andrés Cortina 2
ALGORTA



cianoplan Reprografía

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Ariguo Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
http://www.cianoplan.es

- Imprimatze eta plano kopiak •
- Karteiak kolorez eta z/b •
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua •
- Fotokopiak kolorez eta z/b •
- Era desberdinetako koadernaketak •
- Plastifikazioak •
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak •
- ermarkaketak •



EUSKARAZ OLGETAN, ABIAN

Eskualdeko umeen artean aisialdian euskararen erabilera bultzatzea dauka helburu Euskaraz Olgetan progarmak. Iazko arrakasta ikusita aurten ere egitea erabaki du Uribe Kostako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak. Besteak beste komiki astea, sukaldaritza astea, birziklapen lantegiak... eta antzeko ekimenak antolatuko dituzte maiatzaren 3tik aurrera. Lemoizen asteleheneran egingo dute (17:30-19:30), Urdulizen eguaztenetan (17:30-19:30), Plentzian eguenetan (17:30-19:30), Sopelan barikuetan (18:00-20:00), Barrikan zapatuetan (11:00-13:00) eta Gorlizan domeketan (12:00-14:00).

ANTZINAKO ARGAZKIAK

1929-1955 bitarteko argazkiak egongo dira ikusgai Goñi Portal kultur etxean (Plentzia) hil amaiera arte. Eraikin zaharrak, antzinako bizimodua, garaiko herritarrak, kasinoko jaialdiak... islatzen ditu Itsas Museoa antolatu duen 35 argazkiko erakusketak.

UDAL ERAIKIN BERRIA

Elexalden 375 metro koadro erabilgarriko eraikina egin du Gorlizko udalak. Udaltzaingoa, Bake epaitegia, Gizarte Ongizateko zerbitzuak eta Kontsumintzaileen Informazio bulegoa hartuko ditu eraikuntza berriak. Udaltxearen itxurara egin dute, aurrealdea Pitillaseko harriagaz estaliz. Bi solairu eta aparkalekua dauzka, lehenengo solairuko zoruak eta eskailera marmolezkoak dira, bigarreneko zoruak Gineako egurrezkoak.

GORLIZ IRRATIA**“Txiki Gune” euskarazko irratsaio berria**

Sara, Andrea, June eta Nagore dira momentuz esatariak

Domeka goiza. Hamarrak iragarri ditu erlojuak. Hasi da ordubeteko iraupena daukan *Txiki Gune* saio berria Gorliz Irratia Uribe Kosta Irratian (107.8 FM). 10-11 urteko lau neskatok, Sara, Andrea, June eta Nagorek gaztetxoek eta haurrei begirako euskarazko irratsaioa ipini dute martxan.

Irrati bidez euskara sustatzeko proiektuaren barruan ipini dute abian *Txiki Gune* irratsaioa, eta Uribe Kostako Mankomunitateko eta Gorlizko udaleko euskara sailen babesa dauka. Izan ere, Uribe Kostako umeek zein

gazteek aisialdian ere, eskola orduetatik kanpo, euskara erabiltzea bultzatu gura du programak. Ipuinak, asmakizunak, bitxikeriak, zuzeneko deiak erantzun, horokopoa irakurri... eta gure eskualdean gaztetxoentzat antolatzen diren ekitaldien berri ematen dute 4 esatariak. Eta kontrol mahaia erabiltzen ere irakitsiko ei diete.

Osterantzean, gura duenak zabalik dauzka *Txiki Gune*ko uhinak, bai entzule bai esatari moduan. m

Informazio gehiago: 94 677 45 75

Api. 20 - Mai. 7

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK**SOPELA**

► **Paneles. Vicente Ferrer Fundazioa.**

Sopelako udaletxea. Apirilaren 24tik maiatzaren 6ra arte.

BERANGO

► **Begoña Zumalakarregiren margolanak.**

Erakusketa aretoa. Apirilaren 24tik maiatzaren 7ra arte.

GETXO

► **Kideak.** Algortako erakustaretoa. Apirilaren 24tik maiatzaren 6ra arte.

ZINEMA**GETXO**

► **Feliz Navidad.**

Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Apirilak 21, barikua. 22:00.

► **Samaritan girl.**

Zine-Kluba. Apirilak 26, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.

► **Ebrio de mujeres y pintura.**

Filmare proiektzio eta foruma. Cinema Paradiso. Azpitoludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Apirilak 28, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.

► **La profecía de las ranas.**

Umeentzako zinea. Getxo Antzokia. Apirilak 30, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2 euro.

► **XIII. Haur Zinema jardunaldiak.**

Getxo Antzokia. Apirilak 19, 20, 21, 22, 23. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2 euro.


LEIOA

► **Munich.**

Auditorium. Apirilak 22, zapatua; 23, domeka eta 24, astelehena. 20:00.

► **Looking for Fidel.**

Auditorium. Apirilak 25, martitzena. 20:00.



► **Algorta**

Nazioarteko Dantza Eguna Getxon

Danza Getxo kultura elkarteak Nazioarteko Dantza Eguna antolatu du apirilaren 29rako. Goizean, *Euskal Dantzak* koreografia eta Getxoko dantza eskoletako irakasleen lanak egongo dira ikusgai San Nikolas Plazan. Arratsaldean, beriz, euskal koreografoek sortutako lanak erakutsiko dituzte Getxo Antzokian. Ekitaldietan hiru eta hogeita bost urte bitarteko dantzariak hartuko dute parte. Sarrera 9 eurokoa izango da (3 euro Danza Getxo elkarteak bazkideentzat). Aukera ezin hobea, beraz, dantzari gazteen urte osoko emaitzak ikusteko.

• **Non:** San Nikolas plaza • **Noiz:** apirilak 29 • **Ordua:** 11:30

► **Bambi 2 El principe del bosque.** Haur zinea. Kultur Leioa. Apirilak 23, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.

PLENTZIA

► **¿Por que las mujeres siempre queremos más?**

Helduen zinea. Goñi Portal Kulturala. Apirilak 21, barikua. 21:15.

► **Star Wars. Clon wars.**

Haur zinea. Goñi Portal Kulturala. Apirilak 22, zapatua. 18:00.

► **Love me tender.**

Helduen zinea. Goñi Portal Kulturala.

► **Llegando a mi destino.** Gazteen zinea. Goñi Portal Kulturala. Apirilak 29, zapatua. 18:00.

BERANGO

► **La novia cadaver.**

Gaztelekua. Apirilak 23, domeka. 17:00.

ANTZERKIA**LEIOA**

► **Lamiako maskarada.** Dantza-antzerkia. Kultur Leioako Auditoriuma.

► **Imprebis.**

Kultur Leioako Auditoriuma.

► **Argitxo eta dir-dir.**

Kukubiltxo. Kultur Leioako Auditoriuma.

► **Deabru Beltzak.** *Adi Adi.*

Umeentzako antzerkia. Kultur Etxea.

► **Plentzia**

BESTEAK**GETXO**

► **Liburu Azoka.** Algortako Geltokia plaza. Getxoko Udal Liburutegiak eta liburu-dendek antolatuta. Apirilak 21, 22 eta 23. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00.

► **Pio Lindegaarden omenezko jazz kontzertua.** Areetako Andres Isasi Musika Eskola. Apirilak 29, zapatua. 20:00. Sarrera: 9 euro.

ERANDIO

► **Omenaldia Teodoro Ortizi.**

Musika Bandaren kontzertua. Altzagako merkatua. Apirilak 28, barikua. 20:00.

► **III. Mountain Bike Sari Nagusia.** 2006ko Euskadiko Mountain Bike Open Txapelketako proba. Akarlanda parkea. Apirilak 30, domeka. 9:30.

► **Euskal Jaia.** Gaupasa Amaiur taldeagaz eta diskoteka. Goiherri. Apirilak 30, domeka. 24:00.

► **Antolatzailea:** Goiherri Kirol Elkarteak.

► **BERANGO**

► **Liburuaren astea.** Berangoetako kultur etxea, pilotalekua eta ludoteka. Apirilaren 18tik 23ra arte. Hans Christian Andersen ipuinak landuko dira.

► **LEIOA**

► **Haur Jaia.** Errekalde plaza. Apirilak 28, barikua. Goizean ikastetxeak eta arratsaldean familiakaz. Puzgarriak, kalejira Detraka Animazio taldeagaz eta tailerak.

aldai

**TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK**

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA
25 ANIVERSARIO
URTEURRENA
1981 - 2006



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



**ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!**

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA


[albuma]



Getxo Kantuketan

Euskal Herrian gaur egun egiten den musikarik onenaren erakusleho izateko Kantuketan egitasmoa abian ipini zuen Getxoko udaleko Euskara Zerbitzuak orain dela lau urte. Bere ibilbide laburrean Kantuketan erreferentziazko kultur ekitaldi bihurtu da eta gure herrian makina bat artista ikusteko aukera eskaini digu. Orrialde hauetara hemendik pasatu diren musikari horietako batzuk ekarri ditugu.

Argazkiak: **Peru Urresti**





ALGORTA, 1900-1920
Iturria: Eusko Itatekuntzaren Argazki Artxiboa

Esne-saltzailea

Algortan joan den mendearen hasieran egindako esne-saltzaile gazte honen erretratu ederra topatu dugu. Zuri garbi-garbiz jantzita dago neskatoa. Buruko zapia, blusa eta amantala zuriak ditu, alboan daukan marmita ere zuria da, exxenik etxe saltzen zuen likido elikagariaren kolorekoa. Hala eta guztiz ere, guri deigarriagoa iruditu zaigu zuritasun horrek estaltzen duen neskatoaren ile mataza luze-luzearen belzasuna. Arreta ipiniz gero eskuetaraino ailegatzen zaiola ohartuko zarete.

[berbetan]

Ipurterrea, ekintzailea, ausarta... Mikel Feijoo Elzo gernikarra unibertsitatera joan zen beste asko bezala, Geografia eta Historia ikas-tera, baina ordurako ere bazeukan garbi ez zuela karreragaz lotutako ezertan jardungo. Historia gustuko dauka, hori bai; geografia, berriz, alde praktikotik landu zuen. Ikasketak amaitu eta Londresera joan zen. Zertara? Bizitzera. Eta horretan segitzen du. Hamaika buelta egin ondoren, moda munduan aurkitu zuen bizimodua, esangurarik zabalenean hartuta: moda da jatekoa mahai gainean ipintzen diona, baina moda -bere moda, ez multinazional handiek agindutakoa- bizitzeko era bat ere bada Feijooentzat. Skunk Funk, euskal marka arrakastatsuenetako bat sortu eta gauzak gero eta hobeto doazkio. Gaur egun, munduko 700 dendatan topa daitezke euren aleak. Ez da huskeria egoitza nagusia Errigoitin daukan enpresa batentzat.

Mikel Feijoo Elzo

Modako euskalduna

Testua: **Unai Brea** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Enpresa-gizon atipikoa ei zara...

—Tira, enpresa-gizona enpresan nabile-lako izango naz, eta atipikoa bai, esan lei-teke.

—Izan ere, ibilbide berezia ei da zurea. Geografia eta Historia ikasi zenuela uste dut...

—Bai, baina gero ez dot ezer egin horre-gaz lotuta, ez dot inoiz eduki asmorik egi-teko. Ikasi, gustura daukadako ikasi nen-dun, gaur egun be gustuko dot historia, beti euki dut jakingura, nahiko herri ku-rioso batean bizi gara, nahiko aberatsa historia aldetik eta nahiko... beno, on-dino bizi garen egoeran bizi gara eta horrek sortuta beti euki dot jakingura, min hori... Ikasi egin nendun eta amaitu eta gero Londresera joan nintzan bizi-zen.

—Asmo argi bategaz joan zinen Lon-dresera edo...?

—Ez, lagunakaz eta... mundu ikusten. Guretzat orduan Londres beti izan zan

gauza handi bat.

—Askatasun paradisia?

—Ez hori bakarrik, hainbeste kultura, eta kultura alternatiboa be bai, beste ten-dentzia batzuk, beste moda batzuk, beste sormen bat... Eta bizitzeko erraz egoan, squaterrak-eta... Bost urtean bost edo sei

“Moda mundua oso gatxa da, baina horrexegatik be oso kitzikagarria”

hilabetetan pagau dot etxea. Aukera egoan, nik ez dot estatutik inoiz dirurik jaso, baina baegoan aukera behar egiteko. —Baina Historia ikasten egon zarela ere, edukiko zenuen asmoren bat, zer egin behar zenuen gero?

—Ez. Bizi.

—Moda inguruan beti?

—Ez, ni ez naz *fashionista*, baina beti apur bat gustetan da halan edo holan jantzita joatea, eta gustetan jatazan arropa

bitxiak, edo jakak, esate baterako, zaha-rrak, motordunak, abioidunak... Berton saltzen nenduzan, eta halan sortu zan apur bat nire bizimodu barria. Gero denda bat zabaldu genduan Gernikan, eta gero beste bat, Gernikan be bai, beste bazkide bategaz, eta gero 96an banandu

egin ginen, eta horregaz diruagaz ba en-presa sortu nendun. Gero kamisetak, fes-tibalak... 98an serioago jarri ginen, eta hurrengo urterako buru-belarri.

—Orduantxe sortuko zen Skunk Funk izena...

—Bai, beno, Skunk Funk ez da enpresa, marka da. 98an sortu zan, eta orduan zabaldu genduan denda Bilbon, apur bat ikasteko eta geure produktuak saltzeko.

—Eta hortik mundu osora...



—Gehienbat mendebaldeko Europan, gero badagoz puntu batzuk Japonen, AEBetan edo Moskun, baina... Udako kolektino honetan 700 bat dendatan gagoz, baina hurrengo negurako seguru asko 850-edo izango dira.

—Londresera bueltako gara atzera... Zenbat denbora egin zenuen han?

—Bost urte, baina handik asko mugitu nintzan, hiru hilabete ez nintzan egon, asko etortzen nintzan hona, motorragaz. Motor baten gainean bizitzen ginen urte batzuetan, eta Holanda, Polonia... danetik ibiltzen ginan.

—Eta zertaz bizi zinen?

—Ba arropa mugiduten, eta ostalaritzan, eraikuntzan denpora luzean be bai... Gehienbat horreek, eta gero ebentoak egiten, denetarik.

—Zelan hasi zinen arropa egiten? Ze, horretarako jakin egin beharko da, teknika bat-edo eduki beharko da...

—Ez, gutariko inork ez dau ikasi. Orain bai, orain jente barria sartu da, baina gu lehenengo *kustomizatzen* hasi ginan, ba agian festibaletan, geure logoak josi, ideiak aurkeztu, patroiak enpresa bategaz, ehunak erosi han-hemen, beste tailer batera eroan ebagiten... Holantxe, profesionalakaz alkartuz.

—Eta orain egiten duzuna, zer da? Diseinua?

—Nik? (Barre)... Bildumak sortu, eta batez be salmentak -hori departamentu kla-bea da-, eta gero zuzendaritza apur bat. Nik ez daroadaz ez harremanak, ez merketera, oin sortu da enpresan horretarako departamentua, eta beste batek daroa. Ni salmentetaz arduratzen naz: ferietara joan, bezeroak topau, banatzaileak topau, produktua mugidu hortik zehar... Hori ezinbestekoa da. Eta gure arrakasta, arrakasta daukagula esan baleiteke, hortik dator; hasikera-hasikeratik leku guztietatik mugidu gara. Jente askok apurka-apurka egiten dau, lehenengo Euskal Herrian, gero estatuan... Ba ez. Gure lehenengo bezeroak izan ziran bat Gasteizen, bestea

Valentzian, bestea Donostian, bestea Sevillan, bestea Toulousen... Euskal Herri bueltan bakarrik hasi baginan, ez egoan aurrera egiterik.

—Zelan lortzen da hainbeste jende ezagutzea?

—Mugidu egin behar! Lehendik be asko mugiduten nintzan, zaletasunagatik... Baina ni ez naz harreman publikoen izar bat, ez pentsau.

—Estilo barri bat sortu duzuela esan daiteke?

“Zer da tendentzia? Industriak diktatzen dauana”

—Idea, hasi ginanean, Ekialde Urruneko Star Trek egitea zan apur bat. Nahiko minimal, garbia, teknikoa -ehun aldetik eta...-, sport-militar nahaste bat. Nahiko ondo hartu eban jenteak. Bezero zaharrak daukaguz, eta horrek niretzat asko esan gura dau. Oso bezero txikiak dira oin, baina hasikeratik dagoz gugaz, eta horrek esan gura dau linea horrek badaukala zozzer... Aldatu egin dogu apurka-apurka, baina ez mutur batetik bestera. Beti gure lineari jarraitzen deusagu, eta horrek batzuk aspertzen ditu, baina beste batzuei seguridatea emoten deutse, ze hurrengo denporaldian zer datorren, gitxi gorabehera, badakie.

—Apurka-apurka hasi, eta halako batean konturatzen zara piztia sortu duzula, edo hori kontrolatuta edukitzen da?

“Modari, tendentziei estu jarraitzen deutseenak gitxienak dira”

—Ez, ez dago kontrolatzerik. Gainera, ez da apurka-apurka joan. Hori bai, ez da bardina %30 haztea 10.000 alegaz hasita, edo %30 haztea 100.000 alegaz hasita, baina gure hazkundera haundia izan da hasikeratik.

—Esan gura dot gitxigaz hasi zinetela...

—Bai. Normalean, marka barriak sortzen diranean nahiko diru egoten da atzetik. Gu ez, gu lau milioigaz-edo hasi ginan... Eta gero, ez dogu esan halako batean: “Zelan hazi den hau!”. Guretzat bizitza-proiektu bat da hau, buru-belarri gagoz, beraz ez da munstroa. Beti gabiltz apur bat okerreko hankagaz, arineketan, partxeak iminten, baina negozio honetan ez dago esaterik “geratu egingo gara urte batean gauzak ondo antolatzen, gero aurrera egiteko”, ze trenea galdu dozu.

—Suerte kontua da?

—Harek esaten eban moduan, suertea prestatuta dagoanak baino ez dauka. Suertea euki zeinke, esaterako, logo bat egiten badozu, Loreak Mendianek bezala, edo primerako esaldi bat. Hori bada suertea. Baina gero zer bat ez badago atzetik... Eta Loreak Mendianek gero diseinuak egin dauz, beharra...

—Kontua da moda mundua oso apatsua dela -edo halan emoten du kanpotik behintzat-, ze jende asko dabil, ideia asko... Arrakasta daukan bakoitzeko zenbatak egiten du porrot?

—Bai, bai, bai, hor faktore asko dagoz, eta nahiko faktore kaotikoak. Esaterako, gu jente askok hartzen gaitu garen modukokak, hori transmitidu egiten dogu, ez dakit zelan. Baina jenteak, esaterako, ez gaitu

aldizkarietan ikusten, eta pentsetan dabe nahiko marka alternatiboa garala. Alternatibo diseinu aldetik eta bizimodu aldetik. Gure produktua ez da beste batzuk baino hobea, beste batzuk agian teknikoki hobeto eginda dagoz... baina hortxe dagoz elementu batzuk -prezioa, eta guk

emoten dugun irudia, eta gure banaketa politika...- eta horrek eragiten dau jente askok gu aukeratzea.

—Eta moda munduan hainbeste jende, hainbeste marka egonda...

—Ehunka dagoz!

—Zelakoa da kompetentzia?

—Oso handia.

—Giro txarra ere bai?

—Denetarik dago. FERIA askotan beste marketako jenteagaz joaten gara parrandan eta... Baina tira, kalean kompetentzia handia dago, jakina, urtero-urtero marka asko popatik hartzera joaten dira. Oso mundu gatxa da, baina horrexegatik be nahiko kitzikagarria.

—Zer da modaren tendentzia esaten zaion hori?

—Horrek etxe handietatik urtetan dau; *pret a portet*, eta horreek desfileak. Zer da tendentzia? Industriak diktatzen dauana. Eta gero tendentziak sortzen dabez... Tendentziak kalean sortzen dira, gero badagoz cool hunters deritxonak: gazteek,

edo gazte kultur-abangordia esaten jakezananak, hau da, leku konkretu batzuetan jentek zer jantzen dauan apur bat ikusten dabilzanak. Hortik ikusten dabe zer etorriko dan edo zer etorri leitekeen gitxi gorabehera, eta orduan hasten dira euren diseinadoreak horreek gauzak lantzen. Apur bat kaotiko eta bat-batekoa da. Azken batean hau industria da, eta kontsumismoa, nahiko etereo. *Tendencias de moda en las pasarelas de Paris?* Ez da hori. Askoz be gauza kaotikoagoa da, eta niretzat politagoa.

—Zeuk esandakoa da ez zarela modaren esklabua. Zer da modaren esklabua izate?

—Zer dan? Hainbeste jente dago holan, oin hauxe dator eta oin hauxe jantzen dot, eta lehengo arropak ez, ze oin ez dabe balio... Beti lumajea aldatzen dabilzanak, ze azken batean arropa lumajea da, ezta?

—Negozio hutsa beraz...

—Bai, noski. Baina geurea be bada, eta gu

ez gara holakoak, ez dogu urte batetik bestera goitik behera dena aldatzen. Azken batean industria bat da, eta rollo horreek egiten dabez gehiago kontsumitzeko. Lehen rokeroa zana urtetan zan rokeroa. Orain elektro-ez-dakit zer dana datorren urtean erromantikoa edo...

—Baina zure ustez, kaleko jende arrunt gehiena oso kezkatuta egoten da, zer datorren edo ez datorren?

—Danok... Modari, tendentziari estu jarraitzen deutseenak gitxi dira, gero aztetik dator masa handia, eta gero badago antimasa be, euren estiloa daukienak, antiestiloa. Eta danok daukagu zer apur bat... Zer esango deusut? Lehen Pumak egiten ebazan zapatilla honeek, nik beti ikusi dot gauza nahiko motza dala, baina beno, ikusten eta ikusten, azken batean neuk be erosi dodaz eta oso gustura. Danok gabiltz influentziakaz. Kezkatuta? Lumak danok daukaguz, batzuk faisaienak, eta beste batzuk lumagorrienak. m

Ondopasa euskaraz jaia




haurrentzako
puzgarriak,
aisialdi lantegiak,
kale animazioa...

Leioan
Apirilaren 28an
Errekalde Plazan
Goizez eta arratsaldez

Sareta: don, baina korporazio bat ez dabilen
digu haur eta gazteak, nek bere burua
dimitzatu euskaraz eginez ordu pasa dezakeela.
IRAKISUNA ERABILI!



Hormak garrasika

ZORROTZA (PEDRO ZARRABETIA)

Orain dela 20 urte, Pedro Zarrabeitia argazkilariaren zuzendaritzapean, Algortako Irudi Taldeko kideek Bizkaian zehar barreatuta zeuden 1.200 hormairudi edo mural jaso zituzten iruditan. Internet eta sakelako telefono bako urte haietan, gaur egun bazterturik dagoen komunikazio tresna hau bizi-bizirik zegoen eta era guztietako aldarrikapenak egiteko erabiltzen ziren pintadak. Orrialdeotara adibide batzuk ekarri ditugu.

Argazkiak: **Algortako Irudi Taldea**

Irudiak *Expresión mural* (Bizkaiko Aurrezki Kuba, 1985) liburutik hartu ditugu



PORTUGALETE (M. GARCIA)



ALGORTA (PEDRO ZARRABETIA)



SESTAO (PEDRO ZARRABETIA)




SESTAO (PEDRO ZARRABETIA)



BILBO (PEDRO ZARRABETIA)



GERNIKA (PEDRO ZARRABETIA)



GERNIKA (PEDRO ZARRABETIA)



SOPELA (KONRADO MUGERTZA)



BILBO (A. ALONSO)




ALGORTA (PEDRO ZARRABETIA)



ZORNOTZA (PEDRO ZARRABETIA)



BERANGO (PEDRO ZARRABETIA)



GALDAKAO (PEDRO ZARRABETIA)



LEIOA (PEDRO ZARRABETIA)



BILBO (PEDRO ZARRABETIA)



LEIOA (PEDRO ZARRABETIA)



LEIOA (KONRADO MUGERTZA)

Getxon FADURA Institutua

ETORRI GURE INSTITUTURA BETI DITUGU ATEAK ZABALIK

Fadura Institutua
Goi Mailako Loraino Heziketa Institutua

Batxilergoa (A/D)
Teknologikoa
Natur eta Osasun Zientziak

D.B.H. (A/D)

Erdi Mailako Heziketa Zikloak
Karrozeria
Erizaintzako zaintza osagarriak
Ibilgailuen elektromekanika (A/D)
Kontsumorako ekipa elektronikoak (A/D)
Mekanizazioa

Goi Mailako Heziketa Zikloak
Produktu elektronikoen garapena (A/D)
Mekanizatu bidezko produkzioa
Osasun-dokumentazioa

Aurreinskripzioak

Batxilergoa Heziketa Zikloak (Sarbidetza-Probak) Apirila 24 - Maiatza 5	Heziketa Zikloak (Sarbidetza Zuzenez) Ekaina 1-7
--	---

Logos: Ca, Euskadi 2011, AENOR, E-Net, ER.

Mapa: FADURA INSTITUTUA, GETXO Rugby Zelaiak, FADURAKO Tenis Pistak, FADURAKO Atletismo-Pista, C.D. GETXO Futbol Zelaiak, FADURAKO Igerilekua.

zineeskola

Oskar Fernandez

Lehenengo desadostasunak

Zinema sortu bezain laster pertzepzio desberdinagatik desadostasunak lau haizeetara zabaldu ziren. Beraz, hasieratik jendeak bai filmengatik baita zinematik ere iritzi desberdinak izan zituen. Gertakari honek azalpen erraza du. Ikus dezagun honetaz zer esaten zuen Hugo Münsterbergek, (1863-1916) filosofia irakasle eta zinemako lehen funtsezko teorikoa izan zenak: "Zinema fenomeno materiala baino fenomeno psikologikoa da eta pelikularen existentzia ikuslearen buruan baino ez dago, eta honek pelikulari esanahia ematen dio". Orain bota dezagun gure begirada zinema sortu zen hilera eta urtera. 1895eko abenduaren 30a, La Poste Pariseko egunkariak kronika batean halako hau idatzi zuen:

"Argazkigintzak orain mugimenduari iraurarazi dio. Asmakizunaren edertasunak aparatuaren berritasunean eta azkartasunean datza. Jendeak argazki mugikorren bidez bere lagun minen eta senideen eginkizunak eta mugimenduak, baita ezpainetako hitzak ere hartu ahal izango dituenen, heriotza ez da inoiz ere erabatekoa izango". Egunkari honek poztasun handiz agurtu zuen zinema. Iritzi guztiz kontrakoa zuen errusiar idazle naturalista ospetsua zen Maximo Gorki. Honek 1896ko udan artikuluen bidez holan deskribatzen zuen: "Bart gerizpeen erreinuan egon naiz. Jakingo bazenute ze arraroa den han sentitzea! Soinubako mundua da. Han gauza guztiak, lurra, zuhaitzak, jendea baita airea ere gris aspergarri batez jantzita daude. Eguzki izpi grisek zeru grisa ere zeharkatzen dute, begi grisek aurpegi grisen erdian eta zuhaitzetan hosto gris errautsa. Ez da bizitza, baizik eta bere itzala, ez da mugimendua, baizik eta bere mamu isila". 4

Filmetako musikagilea

Angel Illarramendik 10 urteotan zinerako sortutako musika batu du **disko bikoitzean**

Illarramendi 1995-2005 CD bikoitza plazaratu du Angel Illarramendi (Zarautz, 1958) konpositoreak. Azken hamarkadan zinerako sortutako 50 obra inguru aukeratu ditu gipuzkoarrak eta 160 minutuko tartean, besteak beste, hurrengo filmetako musika gozatzeko aukera eskaintzen du: *Tasio* (Montxo Armendariz, 1984), *Kareletik* (Anjel Lertxundi, 1987), *El ultimo viaje de Robert Rylands* (Gracia Querejeta, 1996), *The man with rain in his shoes* (Maria Ripoll, 1998), *Yoyes* (Helena Taberna, 2000), *Karramarro uhartea* (Txabi Basterretxea, Joxan Muñoz, 2000), *El hijo de la novia* (Juan Jose Campanella, 2001), *El rey de la granja* (Gregorio Muro, 2002), *Extrangeras* (Helena Taberna, 2003), *Hector* (Gracia Querejeta, 2004), *Luna de Avellaneda* (Juan Jose Campanella, 2004) edota *Sinfin* (Manuel Sanabria, 2005)... Azken bi filmeentzat egindako musika gainera orain arte argitaragabe zegoen;

«Tasio, Yoyes, El hijo de la novia, Luna de Avellaneda... filmetako musikagilea»

Luna de Avellaneda-rena Argentinan bakarrik kaleratu zuten. Horrez gainera, *Zapatos de mujer* operaren obertura ere entzun daiteke musikagilearen disko berrian.

Iformazio gehiago: www.illarramendi.com

Hamaika urteaz hasi zen Illarramendi lehenengo kantak sortzen eta 1978an kaleratu zuen abesti eta lan instrumentalez osaturiko lehenengo diskoa. Antzerkirako musika sortzen hasi zen eta musika irakaskuntzan ere jardun du, Montxo Armendarizek bere atea jo zuen arte. Orduetik buru belarri dabil zinerako lanean. Musika kontzertistiko ere lantzen du: sinfoniak, meza, ganbera opera, etab.

Amaitzeko, disko berria bere web orrialdean eskura daiteke 14 euroko prezioan (3 euro bidaltzeko gastuak). m

Ez galdu > Chihwaseon

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: maiatzaren 5ean, barikua • Ordua: 22:00 • Zinema Paradiso



Film eder eta interesgarri honen atzean zuzendari korearra ezaguna dago: Kwon-taek Im. Zuzendari hau Koreako zinemaren urrezko garaiko ordezkarietako bat dugu. Berak bere lanagatik garai horretako sortzaileetarikoa bat izan da. Bere lehenengo film luzea 1973an zuzendu zuen, handik aurrera hamazazpi pelikula egin ditu. Oraingo honetan edertasunaz beteriko istorioa kontatzen digu. Protagonista Koreako XIX. mendeko margolari ezagun bat da: Jang Seung-up. Bere trebetasuna pintzelekin izugarria da. Istorioa girotzeko Seul hirian inoiz egindako eszenatokirik erraldoiena eraiki zen. Margolariaren bizitza Joseon dinastiaren garaian kokatu zen. Film atsegin eta erakargarri honek Cannesgo Nazioarteko Zinemaldian zuzendaririk onenaren saria eskuratu zuen. Argazki zuzendariak denbora luzez Koreatik bidaiatu zuen udaberri partean irudirik ederrenak hartzeko asmoz.

Noizean Behin, behingoz!

Gatkarrek (... inoiz kontatu ez nizkizunak...) lehenengo lana aurketzu dute metal doinueta



Hurrengo kontzertua: Gatikan hilaren 29an, Sutagar eta Los Moñagasegaz. Harremanetarako: 618 072 026

Lantzean behin Uribe Kostako mugatik periskopia ateratzen dugu, eta azkenengo galbahean Gatikan gelditu zaigu begia. Noizean Behin laukote metaleroaren berri kontatzea dagokigu, eta oraintsu arte Alexek (ahotsa eta gitarra), Ibaik (gitarra), Anderrek (bateria) eta Hegoik (baxua) kontatu ez dizkigutenak argitarara ekarri behar ditugu. 2001ean sortu zen taldea, ostera 2004an bihurtu zen laukote. Plazarik plaza ibili badira ere ez dute pasa den urtera arte diskoa grabatzeko irrika berezirik eduki, Euskadi Gazteko maketa lehiaketan aukeratuen artean gelditu arren. Alabaina, Natxo Libertyk eskutik hartu eta Baga-Biga

Musika Ideiak disketxe jaioberriaren aukera baliatuz (...inoiz kontatu ez nizkizunak...) lehenengo lana plazaratu dute. 10 kantuz osatutako diskoa "beti metalaren inguruan baina gauza askoren nabasketa" dela dio Alexek, "metal diogunean jendeak ideia bat dauka, eta gurea agian metal berezia da: ez hain gogorra, melodia gehiago, rock, pop influentziak...". Bizitako gauzen inguruan dihardutela adierazi du abeslariak, "inguruan gertatukoak, herrikoak, baina beti saiatzen gara modu ez zuzenean kontatzen, baizik eta metaforen bidez, istorioak asmatzen; hori da gure letren ezaugarria". m

Informazio gehiago: www.noizeanbehin.com


diskoak

Mi niña Lola
Buika
Casa Limón



Afrika, Amerika eta Andaluzia hartu ditu oinarritzat Concha Buikak bere abestiak osatzerakoan. Jatorriz Gineakoa den artista honek, eritmo afrikarra eta jazz garaikidea uztartzeaz gain, ijitoakaz bizitako haurtzarora izan du kontuan lan berrian. Bere bigarren proiektua dugu honako hau eta kopla inoiz baino indartsuago dator. Besteak beste, *Mi niña Lola*, *Ojos verdes* edo *Te Camelo* klasikoak daude diskoan.

Saredun eskua
Rafa Rueda
Gaztelupeko Hotsak



Poparen ildotik konposatutako 10 abesti biltzen ditu bere bakarkako bigarren lana den disko berriak. Oraingoan, aldiz, bigarren gitarak teklatuari utzi dio lekua eta Alos Quartet soka laukotearen zein Kris Kase tronpeta jotzailearen laguntza izan du. Rafa Rueda Mungjako kantariak Azkarateko Katarain estudioan burutu du grabazio lana. Jonan Ordorika teknikariagaz batera.

Dan txia
Tomas San Miguel
Musimagic



Akordeoi jotzaileak txalapartaz lagundurik kaleratzen duen hirugarren CDa da honako hau. Oraingoan, akordeoiaren doinuak eta txalapartaren eritmo etnikoak iturri kultural desberdinetatik edaten duten musika-tresnekin batzen dira eta etno-txalaparta, baiio-txalaparta, samba-txalaparta, fandango-txalaparta, trikitia-trance-txalaparta eta bertsotxalaparta bezalako nahasketak sortzen dituzte.

topaldia > trikitilariak Gorlizen



Trikitixa Topaldia antolatu dute Gorlizen hilaren 29an (09:30). Egun osoan zehar trikiti eta pandero doinuek alaituko dute herria, baina

topagune nagusia Eliz Plazako udal frontoia izango da. Egitarauari begira, pelota partidak, kalejira, bazkaria, erromeria... iragarri dituzte eta trikitia edota pandero baten zozketa egingo dutela adierazi dute. Roberto Etxebarriaren Jira Eskolak antolatu du topaldia, eskolako ikasleek eta lagunek osatutako Ahaire kultur elkartearen laguntzagaz. Ekimena prestatzen duten 3. urtea da aurtengoa, iaz Meñakan egin zuten eta aurrekoan Loiu. Antolatzaileen esanetan 120-140 trikitilari inguru batuko dira Gorlizen hileko azkenengo zapatuan.

kontzertua > Lindergaard gogoan

Urtero legez, Getxoko Jazzaldiak Pio Lindergaardi gorazarre egiteko antolatzen duen jazz kontzertua hartzen du apiriliak. Aurten hileko azken zapatuan (20:00) egingo da Areetako Andres Isasi Musika Eskolan eta Kurt Rosenwinkel buru duen laukoteak eskainiko du emanaldia. Sarrerek 7/9 euroko prezioa daukate eta dageneko salgai daude. Lindergaard Zornotzako danimarkarra jazzaren zale eta bultzaile porrokatua izan zen eta Getxoko Jazzaldiko laguntzaile eta sustatzaile kantsaiezina.

etorri
eta
ikus!!

MORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algortia

Bihotz Handi
Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza
maiatzak 8

Areetako ambulatorioa
maiatzak 9

Zatoz odola ematera,
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Euskal Pizkundea

Juan Perez de Lazarragaren
eskuizkribuaren gaineko erakusketa Erandion


Apirilaren 27ra arte, orain dela urte bi aurkitutako Juan Perez de Lazarraga (1564-1567) idazle arabarraren eskuizkribuaren inguruko erakusketa izango da ikusgai Astrabuduko Josu Murueta Kultur Etxean.

Orduan egindako aurkikuntza hura nahiko garrantzitsua izan zen euskal literaturaren historiarentzat; izan ere, ordura arte ezagunak ziren euskal idazle zahar gehienak (Etxepare, Leizarraga, Axular...) Iparraldekoak, helduak eta abadeak baziren, Juan Perez de Lazarraga laikoa, noblea eta gaztea zen (egindako ikerketen arabera,

«Euskal pizkundearen hastapenak agerian uzten ditu eskuizkribuak»

17 urte besterik ez zituen testua idatzi zuten). Gainera, XVI. mendeko Euskal Herriaren ikuspegi berri bat erakusten digu, euskal pizkundearena alegia. Adituen ustez, errenazimentu euskaldunaren hastapenak uzten ditu agerian, zinezkoa eta ez garai hartan ohikoa izan zitekeen kontraeraso erlijioso-katoliko hutsa.

Eskuizkribua zati bitan banatzen dela esan dezakegu. Alde batetik, amodiozko olerkiak zein erotikoak eta, bestetik, artzain-nobela (pizkundeko ohiko generoa



Informazio gehiago: www.gipuzkoakultura.net

eta XVI. mendean modan zegoena). Lazarragak euskal literaturari egindako ekarpena, beraz, oso garrantzitsua da, hura izan zen eta mota horretako nobelak idazten lehenengoetarikoa (ez zen arrunta erlijio gaietatik aldentzea) eta gainera, aldameneko hizkuntzen idazleek maila berekoa izan zelan esan liteke.

Horrez gain, Arabako euskarak historiografiak aitortu dion baino leku zabalagoa betetzen zuela argi utzi du eskuizkribuak; izan ere, idazlea Agurain ondokoa zen jatorriz, gaur egun euskara galdua duen Larrea herrian dagoen dorrekoa. m

liburuak

Adiskide maitea
Batzuren artean
Txalaparta

Euskal preso garaikideei eskutitz bana idazteko eskatu zitzaizkien 18 idazleri. Besteak beste, honako egileek hartu dute parte: Aurelia Arkotxa, Itxaro Borda, Harkaitz Cano, Julen Gabiria, Arantxa Iturbe, Koldo Izagirre, Karnele Jaiola eta Anjel Lertxundi. Idazle bakoitzak nahi izan duen bezala idatzi ditu gutunak: mezu intimoa, irekia, fikzioa...

Lile
Peru Magdalena
Elkar

Igartza sariaren 2004ko ekitaldian akzesita jaso zuen egileak bere lehenengo lana den honekin. Joratzen dituen gai nagusiak dira, besteak beste, gauak, maitasuna, musika eta koadroak. Bizitza eta artea bat egiten ditu idazleak; izan ere, Magdalenak gogoko ditu musika zein artea eta azala berak egindako margolan batekin osatuta dago.

[kirola]

Yahaira Agirre > judoka

“Lehen zaletasun handiagoa zegoen; gaur egungo gazteek nahiago dute playstationa”



Munduko Txapelketan brontzezko domina eskuratu du Yahairak

Yahaira Agirre oso gaztea zela hasi zen judoa praktikatzeko, lau urte besterik ez zituen-eta. Bere neba nagusiak judoa egiten zuen eta Yahaira gurasoakak joaten zen bere bila; orduan sartu zitzaion kirol hartan aritzeko grina.

Gaur egun, 26 urte ditu getxoartzar honek eta mundu osoan zehar lehiaketetan parte hartzeaz gain, Astrabuduko Ignacio Aldekoa ikastetxean judoa irakasten du. “Oraingo umeak, halere, ez dira lehenengoak bezalakoak. 30 bat umeri ematen diet eskola eta, sarritan, adarra jotzen didate. Lehen, gainera, zaletasun handiagoa zegoen eta gaur egungo gazteei ez zaie tatamina igotzea gustatzen, nahiago dute playstationagaz ibiltzea”.

Hala ere, EAEn maila nahiko altua dagoela dio kirolariak. “Euskadiko ordezkariak zortzi domina eskuratu dituzte, eta Euskadikoak izan arren beste leku batzuen izenean lehiatzen diren gainerako judoek urrezko hiru domina eta brontzezko bi eron dituzte etxera”. Lehenengoen artean bera dago, izan ere, azkeneko Estatuko txapelketan Olinpiadetan Espainia ordezkatu

zuen Isabel Fernandez gailendu zitzaion eta Birminghamen egin zen Munduko Txapelketan brontzezko domina eskuratu zuen, lehenengo norgehiagokan eskuan min hartu zuelako. “Nire hurrengo erronka Unibertsitatean Munduko Txapelketan lehiatzea da, Isabel Fernandezek lehentasuna duenez, oso gatsa da Europako txapelketan aritzea. Horrez gain, Koreako Munduko Txa-

«Olinpiadetan parte hartzeko ahal dudana guztia egingo dut»

pelketa prestatzen nabil eta hurrengo Olinpiadetan parte hartzeko ahal dudana guztia egingo dut”. Alabaina, azken hori lortzeko ahalgaitza oso handia egin behar dela dio Yahairak. “Goiza eta arratsaldea eman behar duzu entrenatzen. Nik, adibidez, ikasten jarraitzen dut, lehentasuna judoari eman niolako eta, ezin naizenez klasera joan, denbora gehiago behar dut karrera amaitzeko. Gogorra da”. m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kirol moda



350 M²
KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXETIKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacorfris s.l.

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETEKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITU

& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

HIRURAK
T: 430

Sarrikobaso 15

Mikel Martinez de Trespuentes > argazkilaria

“Beti urteten dut kalera kamera eskuan daukadala, eta jaietan are gehiago”



“Eguneroko prentsako lanak eskarmentu handia eman dit baina ez nintzateke sekula itzuliko”

UKren aspaldiko jarritzaileak ondo ezagutuko duzue Mikel Martinez de Trespuentes algortar argazkilariaren lana, hainbat urtez berak eduki zuen-eta irudien ardura etxe honetan. Eguneroko prentsaren zurrunbiloan luze ibilitakoa, bestelako saltsatan dihardu azken urteotan. Hala, Liburu Azokagaz batera aurkeztuko du *Getxoko jaiak. Photoalbum 2005* lana. Herriko jaiak Mikelen kameratik ikusteko aukera polita.

—Zure liburua inprimategira bidali barri dago berbaldi hau egiteko momentuan. Argazkiak besterik ez ditu edukiko?

—Argazkiak eta Unai Elorriagaren testu batzuk ere bai. Atal bakoitza testu batez has ten da, ez dut hemen ezer aurreratuko, baina oso interesgarria da. Gainerakoa irudiak dira, 126 orrialde guztira, koloretan.

—Zelan sortu zen ideia?

—Beti urteten dut kalera kamera eskuan daukadala, eta jaietan are gehiago. Urte asko daroat jaietan argazkiak egiten, baina gero

oso gitxi argitaratzen dira. Eta beti edukitzen dut pena hori: jendeak ezin argazkiok ikustea. Nik ez ditut argazkiak neure artxiboan gordetzeko gura. Gure nuke bertan agertzen diren guztiek euren burua ikusteko aukera edukitzea, eta gainerako jendeak ere bai. Urtetan, prentsari hasi nintzenetik, pilatutako irudiak bazter batean pilatzen hasita zeuden. Eta horrek “arazo” bat zekarkidan: jendeak argazkiak eskatzen dizkit, baina ezin diot bakoitzari bana emon, gehiegi direlako. Gura nuke baina...

—Horri aurre egiteko erabaki zenuen liburu hau egitea, zelanbait?

—Hara, esan nuen: aurtan ere kameragaz urtengo dut baina zeozer egin behar dut argazkiak erakusteko. Esaterako, liburu bat. Udaletxearen diru-laguntza lortu eta herriko jai guztietara joan nintzen. Sanjuanetan baino ez nuen huts egin. Hamar jai guztira.

—Eta liburu hau jai zen...

—Ez dakit liburutzat definitu behar den. Bai, liburua da, baina niretzat argazki-albuma da; zeure burua ikus dezakezun album bat, edo zeure burua ez bada, bai behintzat lagun edo ezagunen bat. Hurbileko zeozer izatea gura dut.

«**Getxoko jaiak. Photoalbum 2005** hurbileko zeozer izatea gura dut»

—Irudi mota jakin bat bilatu duzu?

—Ez. Ez noa bila, aurkitzera noa, ez bilatzen. Edo aurki nazaten. Ez dauka zerikusirik eguneroko prentsari neukan presioagaz, argazkiak arin bai arin erredakziora eroan beharraz. Lehengo lankideakaz topo egite-rakoan konturatzen naiz: han dagoz eurak, erlojuaren menpe beti, eta ni lasai-lasai.

—Zuk eguneroko prentsari luzaroan jardun duzu, izan ere...

—Bai, “hemengo” komunikabideetan ibili naiz, zelanbait esateko. Lan handia, txarto ordainduta... Adin baterako ondo, baina ez orain daukadanerako. Argi dago eskarmentu handia emon didala *Egimerako* egunero hamabost gai desberdin lantzeak eta ordu txikitian amaitzeak, baina ez nintzateke sekula ere hartara bueltatuko.

—Askotan pentsatzen duzu: “Ai, kamera edukiko banu orain...!”?

—Gitxitan jazotzen zait hori, beti eroaten dudalako kamera aldean. m

Esakere > “Abrosidute neke”



Irudia: Gorka Vazquez

Egon besterik eiteko eztekonari bere etorten dakoz arrazoiak pazentzi galduteko. Hor dekozue adibide. Askotan pentsaten dogu gaur eguneko bizimodun hasi direzela prisek eta estresak eta halau kontuk: semaforok direla, erloju digitalak direla, sakelako telefonok direla,... beti deku ardurera bat eta egon eziñe emoten doskun zeozer. Yogan gero sartu ber lasaituteko. Baia esaotsezue zatarreri gixajori, abrosidute dauke ta “txoritxuk”, báseriko bizimodu lasaiago dala.

Esakeratxu hau I. Gilisastin *Berba lapikokoa* liburu ederratik atara dogu.

Gureberbakere 75

ZELAN ESAN

Non eta zetan (non gauzen eta zetan gabiltzezen)

Berbakere 57n NORA goazen eta NONDIK gatozen ingiruko kontuk zelan esaten direzen ikusi gendun. Gaur bide horretan egingo dogu aurrera, NON gauzen eta ZETAN gabiltzezen zelan esan ikusteko.

Testua: **Xabi Bilbao**

NON eta ZETAN gaz gehien erabilten direzen aditzek

Egon: nau, hau, dau, gauz, zauz, zauze, dauz

Ibilli: nabil, habil, dabil, gabiltzez, zabiltez, zabilteze, dabiltez

Beste aditz batzuk

Non sartu, sártzen, sártuko

Non lotu, lótzten, lótuko (gelditu)

Non imiñi, íminten, ímingo (ipini)

Non itxi, ítxiten, ítxiko (utzi)

Zetan yon, yóten, yóngo

Zetan etorri, étorten, étorko

Zetan hasi, hásten, hástico

Preguntateko (galdetuteko)

Non zauz?

Non sartu zara?

Non imiñi dozu édari?

Zetan zabiltez?

Zetan yon zara errékara?

Zetan hasi zara orain zapátuten?

Erantzunek

Non?

Etxen, kalen, errékan, mendin, edurren, ezkeran, eskoian, léku txarran.

Íngiruko étxetan, auzoko káletan, Bízkaiko errékatan, gure ménditen, udaletzeko papélatan, léku txárratan.

Ízekonen, ámanaman, Márinen. Barriken, Berangon, Erandíon, Getxon, Leioan, Pléntzin, Urdulizen, Bílbon.

Zetan?

beharren nabil (lanean).

ólgetan dabiltez (jolasean).

yáteko érosten gabiltzez.

Athletic íkusten yon gara.

Músike éntzuten ibil gara.

Yántzan íkisten hasi direz.

Adibide batzuk

—Hamárrak dírez? Non ete dau áitxíte sásoi honetan?

—Guk hor bebean, txóko barrin itxi du (dogu). Baia badire ordu bi.

—Txokón? Hainbéste dénpore? Ezta óngo (egongo) hor... yokon bere eztaú títten ta...!

—Yokon ez, baia badau zetan emon dénpore horosten bere...!

I

**Iñaki
Bitxitegia**

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plaza T: 430 23
Telletxe 1 T: 460 27

Algorta

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GARBI

**GIZONENTZAKO
MODA**

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarrí 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalboko

Porrusalda

Porrusalda prestatzeko beste modu bat proposatu nahi dizuet oraingoan. Alde batetik, porrusalda egingo dugu; eta bestetik, makailua piperrakaz. Hasteko lapikoan oliba oliotan berakatza apur bat egin. Gero patata zatituak, porruak, azenarioa eta kalabaza gehitu. Eduki hau guztia apur bat sutan, urez estali eta su ez-tian egin arte itxaron (40 minutu inguru). Bestetik, zartaginean tipula potxatu ondoren, piper berdea eta gorria tiritan zatiturik gehitu. Eginda dagoenean makailu papurtua gehitu eta egin.

Platera aurkezteko, porrusalda txinotik pasatu eta pure bat egin. Gainean, makailudun piperradari (xukatu aurretik) edalontzi batez forma emon eta purearen gainean ipini. Porruaren alde berdea tira fin-finetan ebaki eta su bizian frijitu. Plateraren gainean ipini gero. On egin! ^m

osagaiak (1au lagunentzat)

kilo erdi patata • bost porru • kalabaza zati bat • azenario bi • berakatz ale bi
250 gramo makailu • piper berde bat • piper gorri erdia • tipula bat



itsaso arana / jolastokikoa

Alvariño

Mahats zuria da *alvariño* ezaguna eta batez ere Atlantikora ematen duen Galiziako kostaldean lantzen da. Jatorria Europako erdialdean duen mahats hau Galizia bezalako inguru hotz eta hezeetara oso ondo egokitzen da. Bere ezaugarrien artean bere lore eta fruta zaporea nabarmendu behar da. Mahatsaren izen bera daukaten kalitate oso handiko ardoak zuriak ematen ditu alvariñoak eta horregatik gero eta gehiago landatzen da.

Esan bezala oso mahats afrutatua da alvariñoa, garratzasun ikutua daukana eta ardo zuri ikaragarriak ematen dituena. ^m



Jokin taberna

Kolore guztietako koktelak Leioan



Argazkian, Ritzar Gadanha tabernako barran

1978an erosi zuen Joaquín Gadanhak gaur egun Jokin taberna dagoen lokala. Aurretik bazegoen han taberna zahar bat; hura berriro eta bere negozioa jarri zuen martxan.

Betidanik herriko taberna izan da Jokin, baina, herria handitzen hasi zela ikusita, itxura modemoagoa eman zion Joaquín eta kanpoko aldean terraza bat jarri zuen. Halere, betiko jendeak hara joaten jarraitu zuen eta horrekin harro dago jabea. *"Asteburuetan familia osoak etortzen dira, erreskadan itzaroten dute hemengo nabak dastatzeko eta sendi bereko hiru belamaldi batu izan ditugu"*, azpimarratzen du Joaquín.

Eskaintzen duenaren artean, oso ondo aukeratutako limoiekin egindako kubalibrea eta patata-tortila dira errege-erreginak.

Alabaina, bestelako pintxoak eta koktelak aurki ditzakegu. Izan ere, zabala da Joaquín urteetan zehar osatutako edarien karta: Cocoloco, Coconut, Tahitiano, Suspiros... Halaber, alkohol bako nahasketak eskaintzen ditu: zukuekin egindako Verde Valle, fruitu tropikalak dituen XXX edo Tropicalismo... Horrez gain, izozkiz zein frutaz egindako irabiakiak dasta ditzake gura duenak.

Alabaina, edariena ez da tabernariak eskaintzen duen zerbitzu bakarra, orain dela 20 urtetik Athleticen San Mamesen jokatzeko dituen partidak ikustera leioztarrak errotan dituen autobus biren jabe da-eta. ^m

JOKIN Elexalde, 26 - Leioa

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25

AREETA



Asado



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gaez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE **Usategi**
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



"Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA

t



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Lagunakaz guzurretan ibiltzea ez da inoiz ona izaten. Zerbait ezkutatu gura al duzu? Pena handia da, adiskide onak betiko mantentzea merezidu du-eta. Kontuan izan traizioa ez dela barkatzen den zerbait!

AITZURRA


t



(Martxoak 21 apirilak 19)
Egutegiari hainbeste bider begiratzeagatik ez da uda arinago iritsiko. Euriak goibeltzen zaitu? Pazientziar har ezazu, aterkia gordetzeko hilabete pare bat falta da-eta. Bitartean, ahalegin bat egin eta plan alternatiboak asmatu.

GARIA

t



(Ekainak 19 uztailak 18)
Ur tanta batean itozten zara! Inguratzen zaituena modu positiboago batean ikusi behar duzu. Ez zara hain txarto bizi eta begiratu bestela benetan arazo larriak dituztenei... Baten bizitzeko jaino gara, aprobetxatu egunean eguneko!

META

t



(Irailak 17 urriak 16)
Zeurekoia zara, benetan. Ez al dituzu besteak entzun eta lagundu behar? Nork bere buruan pentsatzea ondo dago, baina neurri bateraino txo! Zerbait gertatuz gero, nori eskatuko zenioke babesa? Bakarrik zaudela ematen du...

OTSOA

t



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Ez al zara konturatzen zure lagun min hori zutaz maiteminduta dagoela? Guztiak daukate horren barri, zuk izan ezik. Hemendik aurrera perspektiba barritik begiratu beharko diozu eta zerbait egin. Kontuz hartzen duzun erabakiagaz!

HOSTOA

t



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Parrandaz parranda zabilta azkenaldi honetan. Ez al da atsedena hartzeko garaia? Zure amaren aldarriak hemendik entzun daitezke: "Ze ordu dira hauek etxera heltzeko?" Aldatu beharko duzu, ez daukazu-eta umekieretan ibiltzeko adinik.

LASTOA

t



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Arduratuta zaudere eguneroko bizitzan gauza bitxiak gertatzen ari direlako... Irudimena al da ala indar misterioitsuak zure inguruan dantzan dabilta? Direnik ez da sinistu behar, ez direnik ez da esan behar...

HAZIA

t



(Urriak 17 azaroak 15)
Neguan gehiegi loditu zarela eta orain kiloak galdu nahi dituzula? Kirola egitea ondo dago, baina kontuz, obsesio bilakatu daiteke-eta. Udarako gitxi falta da, beraz, argi eduki miraririk ez dela gertatuko.

ADARRA

t



(Otsailak 19 martxoak 20)
Kalean uso eta etxean otso dio esatera zaharrak... Trankilago ibili beharko zinateke, zure jarrerak gehien maite zaituen jendearen bihotzak mintzen dituelako. Agian toki barri batera oportretan joatea ondo etorriko zaizu.

EGUZKIA

t



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Udaberrian arbolak loratzarekin batera proiektu barriak abian jartzeko aukera paregabea duzu. Bildurrak albo batera utzi eta har ezazu hain gitxitan igarotzen den etorkizunerako tren hori behingoz! Bestela damutuko zara!

IRATZEA

t



(Abuztuak 18 irailak 16)
"Suarekin jolasten duena erre egiten da", esan zizun amamak eta arrazoirik ez zaio falta. Adinekoen gomendioak kontuan hartzekoak dira, bestela, ikusi zer gertatu zitzaizun aurrekoan... Urteek emondako esperientziari egiozu kasu!

NEGUA

t



(Azaroak 16 abenduak 20)
"Besteak egiten badu, zergatik nik ez?" galdetu behar diozu zure buruari eta ez hain kakati izan. Zu ez zara albokoa baino gitxiago eta beharrean dena emotea merezidu du. Hori eginez gero, saria jasoko duzu laster...



mungia OKINdegia

Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da "ogi mungia".

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

denborapasa

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


1. Pl., saihets okelak. 2. lleak bereizteko eta apaintzeko erabiltzen den tresna. Musika nota. 3. Hainbat krustazeoren izen. 4. Gari sorta. Jario, jariatu. 5. Bizk., dut. Bizileku finkorik ez duen giza taldea. 6. Bokala. Gorra. R bikoitza. 7. Toka, noa. Bizkaieraz, diot. 8. Epe. Aurizkia. Behiaren marru. 9. Abederako azken letra. Zalantza adierazteko hitza. Ukapena. 10. Abadegaiak.

Goitik behera

1. Euskal dantza mota. 2. Ardura, nekea, eskatzen duen zerbait. Joan aditzaren erroa. Fosforoaren ikurra. 3. Irrati saioa. 4. Errioxako herria. ... egin, leporaino ase. Euskal atzizkia. 5. Gabezia. Neure bokalik gabe. Zerga ezaguna. 6. Semetzako. Kontsonante. 7. Potasioaren ikurra. Altzari mota. 8. Barrea. Nitrogenoaren ikurra. Atzizkia. 10. Kontsonantea. Ontzat hartuak.

Soluzioak

A	P	A	Z	A	P	A	Z	A	P	A	Z
O	K	E	O	T	E	O	T	E	O	T	E
U	M	B	E	R	B	E	R	B	E	R	B
T	O	N	D	I	N	D	I	N	D	I	N
R	R	A	R	A	R	A	R	A	R	A	R
A	D	A	M	O	N	O	T	O	A	D	A
N	O	I	E	R	O	A	V	A	R	O	A
O	R	A	M	A	R	O	A	V	A	R	O
E	R	A	Z	E	R	A	Z	E	R	A	Z
S	A	I	H	E	S	K	I	A	K	S	A



asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Donostiako semea.
- Euskal idazle handia.
- "Ehun metro" nobela gogoangarria idatzi zuen.

> Aurrekoaren erantzuna: Aimar Olaizola
> Irabazlea: **Iratxe Lopez Urkiko (Berango)**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g, *Algorta*
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • **ALGORTA**



PRISCO-K UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Getxo Saski baloi taldea 1982-83 denboraldian

Bere hastapenetatik (1977) bai nesken bai mutilen taldeak izan ditu talde honek. Nesken taldeari dagokionez, 1982-83 denboraldian 2. mailara igotzea lortu zuen. Argazkiko taldea (1982-83 denboraldikoa) 2. mailan lehenengoz jokatu zuena duzue eta horri gaur egun arte, hutsik egin gabe, eutsi dio.

Bestalde, sortzaileen lana aipatu eta eskertu behar da: argazkian dauden Jon Rodriguez (entrenatzailea) eta Itsaso Peñarredondaz gain, Vicente Fernandez eta Angel Rodriguez, eta euren familiartekoak ezin ditugu ahaztu. Vicente Fernandez, Algortako Hirukoiztarren Ikastetxean saskibaloia entrenatzailea izan zen eta TVEk antolatutako "Torneo" txapelketan (1976an) Lehen Saria eskuratu zuen nesken haur mailan. Aipatu talde hau eta Getxon lehendik zegoen beste bat elkartu eta gaurko Getxo Saskibaloia Taldearen oinarria izan ziren.

Eta amaizteko gauza interesgarri bat. Prisco, gaurko mutilen entrenatzaileak esan digunez egungo jokalariek asko ordukoen (orain 25-30 urte) seme-alabak dira. Erakusten egiten du horrek saskibaloia maite zutela eta maite dutela, beraien seme-alabengan halako zaletasuna pizteko gai izan direlako. m

Zutunik: Jon Rodriguez (entrenatzailea), Adela Mesa, Elisa Guantes, Elena Carrera, Begoña Lorenzo, Marta Fernandez eta Itxaso Peñarredonda (delegatua).

Makurtuta: Nekane Etxaniz, Susana, Marta Gerrikaetxebarria, Belen Fernandez, Edith Aurrekoetxea eta Aitziber Rica.

[aitormenak]

ANARTZ ZUAZUA > Wazemank saioko gidoigilea eta aktorea

“Nire itxuragatik ez didate inoiz super heroiaren papera emango”

Testua: **Oiane Moran**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Irudimentsua eta lasaia.

Zein animaliaz zatoz bat?

Horoskopoko txinatarraren bufaloa naiz. Senitarrean bizi den animalia, lasaia, baina bere espazioa urratzen dutenean defendatzen dena.

Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea?

Ez da galdera erraza. Ziurrenik bizitzaren eboluzioari buruz idatziko nuke, urteetan zehar jazotzen denari buruz alegia.

Eta zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Nire itxuragatik ez didate inoiz super heroiaren edo heroi historikoaren papera emango; beraz, inkisidorearena edo guardia zibilarena egingo nuke, hau da, nigandik urrun dauden pertsonaiak antzeztuko nituzke.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Ez naiz mitomanoa. Tokatzen zaiena baino haratago doazen pertsonak atsegin ditut.

Zure jakirik gogokoena?

Asko daude; izan ere, hori da nire plazerik handiena.

Aitor dezakezun bizio bat.

Eguzkia eta itsasoa, tira, egun eguzkitsua itsasoan.

Oporretan joateko toki bat.

Vietnamgo paisajeak edo Txinako kontrasteak.

Zein hutsegite ez duzu sekula barkatzen?

Gezurra, baina arrazoiren bat ematen badidate dena barkatzen dut.

Zer janzen duzu lo egiteko?

Neguan pijama, udan ezer ere ez.


Ohitura txarren bat...

Orduz kanpo jatea. m




Getxo
UDALA • AYUNTAMIENTO
Euskara zerbitzua

GETXOKO UDALA
EUSKARA ZERBITZUA
Basagoiti, 20 Etxe Sorgindua
48992 Getxo
Tel.: 944 660 010
euskara.teknikaria@getxo.net



Matrikula zaitetz  ereduan

Batxilergoa / Bachillerato
Lanbide Heziketa / Formación Profesional

Aukeratzen dozuna aukeratzen dozula,

EUSKARAZ!

LABURREAN— Eremu askotara egokitzen den profesionala da Anartz Zuazua; izan ere, soinu eta irudi teknikaria izateaz gain, antzerki ikasketen lehen zikloa egin zuen Niessen, antzerki diplomatura eskuratu Madrilan eta Parisko Jacques Lecoq nazioarteko eskolan espezializazioa egin zuen. Horrez gain, klarineta jotzen ikasten dabil Donostian. Ikasitakoa praktikan jartzeko aukera ere izan du eta hainbat pertsonaia antzezteko aukera izan du; besteak beste, *Yoyes*, *Plenilunio*, eta *La voz de su amo* filmetan hartu du parte. Beraz, gehienok gogoratzen dugun *Jaun eta Jabeko* Lehendakariaren seme errebeldeak ez bezala, behar gogorra egin behar izan du aktore gipuzkoarrak dagoen tokira ailegatu ahal izateko. Gaur egun bariku gauean euskaraz barre egiten disfruta dezakegu bere lana.

